



Mendiaren Nazioarteko Astea antolatuko du Itxas Argiak, astelehenetik eguenera, Faduran. ▶18

Benito Otazua Asua urduliztarrak hainbat egileren lanak bizkaierara ekarri zituen; ezagunenak: Andersenren ipuinak. ▶22-23



hiruka

Uribe Kostako astekaria



77. zenbakia
2016ko
azaroaren 17tik
azaroaren 23ra arte

«Mirari bat da Xabiroik 11 urtez jarraitzea; eta mantendu izana»

Dani Fano komikigilearen iritzia jaso dugu euskarazko komikigintzaren eta Getxoko Komiki Azokaren gainean. ▶16



© DANI FANO

HERRIZ HERRI LEIOA

Vicrilako langileak babestu ditu Udalak

Talde politiko guztiek aho batez onartu dute Lamiakoko beirategiko beharginen elkertasuna eta babesa helarazteko adierazpena. ▶6



B Creative jardunaldiak, Berangon

Berangoko Gazte Mahaia ekimena B Creative jardunaldiak egiten dabil egunotan, Stay and Job gunean, Berangoko Udalaren laguntzagaz. Bertan, nazioartetik etorritako hainbat gazte parte hartzen dute, Berangoko eta inguruko herrietako hainbat gazte gazte batera. Datorren astelehenera arte, hilaren 21era arte, iraungo dute jardunaldiek; tarte horretan, parte-hartzaileek hamaika jardueraz gozatu ahal izango dute. ▶8

Tokikom Saria Uribe Kostari, bejondeigula! ▶15



Getxoko edukiontziak ordezkatu eta zarama atez ate batzeko sistema ezarriko dute Negurin eta Zugatzarten. ▶2

Erandioztarrei erronka bana egin die Berbotsek, euskararen erabilerarako beste pauso bat eman dezaten. ▶5

Itzartu elkarteak eta Sopelako Udalak hainbat ekitaldi antolatu dituzte emakumeen aurkako indarkeria salatzeke. ▶7

Isuskitzea auzuneko presidentearen ustez, bide hori desjabetzeko beharra dago sarbidearen itxierari aurre egiteko. ▶9



Pentsalekutik

MAITANE NEREKAN UMARAN
Ezertan aditua, askotan aritua

Kirol Portua ala Indabada, aukera politikoa:

Oinarrizko beharrak asetzeko ere baimena eskatu behar dugula irakatsi digute txikitatik. Herri baten oinarrizko beharra da aisialdia eta, gure gizartean (gainerakoetan bezala), politikarekin nahastuta doa beti. Beti. Izan aisia eskaintza auto-gestionatu edo herrikoiak aukeratzeko ditugulako; izan merkatuak saltzen dizkigun aisia aukerak nahiago ditugulako. Kirol Portura joatea ala Gaztetxe Indabada, aukera politikoak dira biak. Politika, ogia non erosten dugun ere badelako.

Ohitura bihurtzen ari da Algortako plazan 17 urtez ospatu den Indabadari Udalak egiten dion jazarpena. Azken urteotan 600 euroko isunak jarri dizkio; aurten, harago joan eta zenbait gazteri lonjara jarraitu, mugikorrera mezu mehatxagarriak bidali eta enpresa pribatuetara datu pertsonal eske deika ibili da. Alkatearen argumentu bakarra: herriko plaza erabiltzeko baimena eskatzea gutxieneko baldintza dela. Ados, herriko plazak herritar guztiontzako gune publikoak baldin badira. Baina, horrela al da Getxon? Alkateak baimena eskatzen al die herritarrei plaza erabiltzeko? Elkartekin adosten al du Jazz, Folk, Blues eta plazak okupatzen dituzten bestelako udal ekimenak noiz egin? Karpa erraldoiek plazak noiz estali behar dituzten adosten al du? Baime-na eman al dio herritarren bategen Txiki Otaegi plazan tamainako astakeria urbanistiko-soziala egiteko? Osoko bilkuran ondoko erantzuna entzuten da maiz: 13.600 bozkek eman digute baimena. Horren aurrean, erantzun erraz asko daude, 66.000 getxoztarrek baimenik eman ez dutela, besteak beste. Argi dago, atzean Udalaren botere eremutik ihes egiten duen aisialdi-eredu baten kontrako jarrera dagoela, ez besterik. Politika, beste behin ere. ◀

Getxo



Laster ekingo diote edukiontziak aldatzeari. GETXOKO UDALA

Zarama batzeko neurri berriak ipiniko dituzte

Edukiontziak ordezkatu eta bosgarrena gehituko dute; etxez etxe sistema ere ezarriko dute.

Getxoko Udalak hiru neurri berri ezarriko ditu hiri-hondakin solidoak batzeari dagokionez. Hauek dira neurriak: etxez etxe sistema martxan ipiniko dute Zugatzarten eta Negurin; udalerririk osoko edukiontziak ordezkatu dituzte; eta bosgarren edukiontzia gehituko dute, hondakin organikoak batzekoa.

Iragarri dutenez, datorren astean hasiko dituzte edukiontziak ordezkatzeko lanak. Imanol Landa Getxoko alkateak adierazi duenez zerbitzu berriaren helburua da 2022an hondakinaren % 50a modu selektiboan jasotzea eta bereiztea (gaur egun % 23,35a bereizten da).

Ekimen berri horiek guztiak Getxoko hondakinak Kudeatzeko Lantaldean jorratu dituzte; horretan parte hartzen dute udal-alderdi politiko guztietako ordezkariak, eta udalerririk hainbat elkartetako kideek ere bai. Etxez etxe sistema Zugatzarten eta Negurin bakarrik ipiniko dute: zarama batzeko 400

puntu baino gehiago egongo dira, horiek auzotarren komunitateagaz adostuko dituzte. Gainera, «edukiontzi-flota»-ren berritzea laster abiatuko dute; eremuak homogeneizatuko dira: guztiek 4 edukiontzi izan ditzaten, gutxienez; hau da: organikoarena, paperarena, ontziena eta errefusarena. Beste gune batzuetan, 5 izango dira (beira-arena barne), edo guztiak, 6 (olioarena sartuta). Bosgarren edukiontzia zerbitzua 2017an ipiniko dute martxan. Hori zelan erabili eta zer zelako hondakinak onartzen dituen jakiteko informazio-kanpaina egingo dute. ◀

ERIZ MAGOA

Azaroaren 26an, larunbata
eguerdiko 12:00etan
Algortako Villamonte Kultur Etxean
sarrera doan



antolatzailea



babesleak



GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

BORDATUAK
EUSKAL JANTZIAK

AINGARA

Aurrezki kutxa, 18. 48930 ERROMO-Getxo
94 403 89 53 • www.bordadosaingara.com

prentsa • aldizkariak



ITXASGANE

Getxoko kirol portua • 94 491 53 21

Getxo



info+: Hiruka.eus/getxo.

Indabada babestu dute ehundaka gaztek

Udaltzaingoaren partetik jasandako «jazarpenaz» kezkatuta daudela ohartarazi dute gazteek.

Algortako ehun gaztek baino gehiagok salatu dituzte Udalak Indabadaren antolatzaileen aurka hartutako neurri «eskandalagarriak». Azaldu dutenez, indaba-jana egin zenetik hona, «gazte ugarik jarraipenak, identifikazioak eta telefono bidezko jazarpenak» jasan dituzte. Udalak jakinarazi du kale, bide edo gune publiko bat okupatzeko, baimena behar dela eta baimenik gabe okupatzen bada, Udaltzaingoak neurriak hartu behar dituela. Hala, kasu honetan, Udaltzaingoak «berdin-berdin» jokatu duela azaldu dute, «hots, halako egoe-

ra bat gertatu denean esku hartu behar izan duen modu berean jokatu duela oraingoan ere». Halere, hori «aitzakia» baino ez dela uste dute gazteek. Horren harira, haserre egoteaz gain, «oso kezkatuta» daudela ohartarazi dute, «jasotako deiek eta gure bizitzaz duten ezagutza mailak arduratzen gaitu». Daborduko hainbat gazte identifikatu ditu Udaltzaingoak; hori dela-eta, Indabada isun baten «mehatxupean» dagoela berriro ere ohartarazi dute. Horren aurrean, Gobernu-taldeari zigorrak ezartzeko hartutako bidea bertan behera utzi eta arazoak «behar bezala konpontzeko deia» egin diote. Halaber, hainbat mobilizazio egingo dituztela iragarri dute; berbarako, hilaren 30ean Udaltzatan mozio bat aurkeztuko dute, eta change.org plataforman Indabadaren aldeko sinadurak batuko dituzte. ◀

GetxoArtegaz batera lanean ibili dira batxilergoko ikasleak

Artaza-Romo institutuko batxilergo Artistikoko bigarren urteko ikasleek eskolaz kanpoko saioak hasi zituzten joan den irailaren 28an. Hori Eduardok zuzendu ditu, Getxoko Kultur Etxeagaz eta GetxoArtegaz elkarlanean. Aurten, ikasleek hainbat parte-hartze aktibo izan dituzte; berbarako, batxilergo artistikoko lehenengo mailako egindako artekaritza parte-hartzailea egon da. Horren helburua izan da GetxoArte ekimena ikasleriari hurreratzeko; horrez gain, artea transformazioarako, gizarte inklusiorako eta auzolanerako ideia gisa landu dute. Horretarako, hiru orduko

hiruna saio egin dituzte, bi ikastetxean eta hirugarrena GetxoArten bertan. Taldeak LHko laugarren mailako ikasleak ekintza bat burutu zuen, GetxoArten ikusgai ipinitako obra biren inguruan.

Horrez gainera, batxilergoko ikasle guztiek Eduardok gidatutako bisitaldiaz gozatzeko aukera izan zuten GetxoArten, azaroaren 4an. Bertan, ikasleek erakusketako obren artistakaz zuzenean berba egiteko aukera izan zuten. Hilaren 6an, zapatuan, berri, bigarren batxilergokoek performancea egin zuten Rosana Antolí ICE-CREAM Performance-ko artistagaz batera. ◀

Hamar eserlekutan 200.655 euro gastatu ditu Udalak

Orain dela egun batzuk Getxo Antzoki berriaren ondoko parkean eta San Nikolas plazan dauden eserleku berrien kostuaren zenbatekoa ezagutzera eman zuen EH Bilduk. Horretarako, aipatutako gune bietan hainbat kartel ipini zituzten horren berri emateko. Hala, koalizio abertzaleak jakinarazi duenez, bertan kokatutako 10 eserlekuek 200.655 euroko kostua izan dute. Halaber, argitu dutenez, banku horiek guztiak egiteko erabilitako materiala IPE da, «hau da, Amazoniatik ekarritako egurra, eremu hori deforestazio arriskuan dagoen arren».

Eserleku bakoitzaren kostuen gaineko informazioa Joseba Arregi Hiri-gintza zinegotziak helarazi zion koalizio abertzaleari. Hala, jakin ahal izan da zein izan den banku bakoitzaren prezioa. Merkeena, San Nikolas plazako eserlekuetako bat da, 10.402 euroko kostuagaz; garestiena, osteria, musika eskolaren ondokoa da: 27.556 euroko gastuagaz. ◀



ZINEBI

BILBOKO DOKUMENTALEN ETA FILM LABURREN NAZIOARTEN JAIALDIA / INTERNATIONAL FESTIVAL OF DOCUMENTARY AND SHORT FILM OF BILBAO / FESTIVAL INTERNACIONAL DE CINE DOCUMENTAL Y CORTOMETRAJE DE BILBAO

AZA 18/25 NOV. 2016

58



BILBO
BILBAO

ADONIZATZAILAR / ORGANIZADOREZ / FINANZATZITZAILEZ

Bilbao **AT** **TEATRO ANTONIA** **BBK**

LAGUNTZAILAR / COLABORADOREZ / COLABORADOREZ

eitb **GUGGENHEIM BILBAO** **Az** **AKTIO**

TEATRO CAMPOS ELIZOS ANTONIA BILBAO **Comunidad de Ciudades Españolas de Cultura** **Filmoteca**

etnologia **etnologia** **A**

SAE **SAE** **SAE**

epa **UNICEF** **gala**

TERRITORIOS Y FRONTERAS **bilboreck** **Barceló**

Getxo **metro bilbao** **Barceló**

Getxo

Inprimaketak, 3Dn

Getxo Elkartegiak

ekintza batzuk egingo ditu 3Dn inprimaketak dituen aukerak ezagutarazteko.

Hurrengo sei hilabeteetan 3Dn inprimatzeko teknologiak eskaintzen dituen aukerak ezagutu eta euren konponbideak garatu ahal izango dituzte udalerriko enpresek eta getxoztarrek. Proiektu pilotua izango da, LanLab Getxo izeneko.

Imanol Landa Getxoko alkateak adierazi duenez «ekimen honen helburua da enpresei eta pertsoneri 3Dn inprimatzeko baliabideak eskaintzea, parte hartze prozesuen bitartez, berri-izateko aukera emanez teknologikoki eta sozialki». Bestalde, gaineratu duenez, «berrikuntzarako elkargune dinamiko eta zabala izango da. Bertan, es-



Udalak, Lantegi Batuak, Gaiker-Ik4 eta pr4 tecnología sozialek bultzatu dute ekimena. GETXOKO UDALA

perientziak partekatu, berba egin eta aukera egongo da 3Dn inprimatzeko teknologiarekin jarduteko eta lankidetzan ibiltzeko». Hala, inprimatzeko aukerak ezagutzeko prestakuntza-talerrak antolatuko dira, baita dinamizazio-jarduerak ere. Halaber, ate ire-

kien jardunaldiak ere egongo dira; hurrengo, azaroaren 17an izango da, 18:00etan. Bestalde, ikastetxeen, elkar-teen, enpresen bisitaldiak; eta udalerriko enpresei eta ekoizleei orientazioa eskainiko diete, besteak beste. ◀

info+: www.3dlan.org

Ekoizpen iraunkor eta kontsumoaren inguruko jardunaldia

Datorren azaroaren 24an, egue-na, *Kontsumo eta ekoizpen-eredu iraunkorrak sustatzea tokian-tokian* izeneko jardunaldia egingo dute Getxo Elkartegian. Horretarako hitzordua goizeko 10:00etan ipini dute. Ekimena Getxoko Udalak, Euskal Fondoak, Euskal Tokiko Erakunde Kooperanteen Elkartek, Europako hiri eta eskualdeen Sareak eta Plataformak antolatu dute. Horretarako finantzazioa, ostera, Europako Batzordetik jaso dute. Antolatuzaileek jakinarazi dutenez, aurtongo jardunaldian Paris (Frantzia), Bartzelona (Herrialde Katalanak), Erroma (Italia) eta Getxo udalerriek hartuko dute parte, besteak beste.

Jardunaldian parte hartu gura dutenek aldeztu aurretik eman beharko dute izena. Horretarako, Euskal Fondoaren helbide elektronikora mezu bat bidali beharko dute, norberaren izen-abizenak jakinaraziz. ◀

izen-ematea: euskalfondoa@euskalfondoa.org

SALÓN DEL CÓMIC DE GETXO
GETXOKO KOMIKI AZOKA
AZAROA 18-19-20
NOVIEMBRE 19

ENTRADA
€ 0,50
€ 1,50

ORDUTEGIA - HORARIO
11-14:30 / 17-21:00
IGANDEA - DOMINGO
11-14:30 / 17-20:00

Erando

Enpresa-proiektuak bultzatzeko laguntzak

Enpresa-jarduerak sustatzeko laguntzak eska daitezke Erandion hilaren bukaera arte.

Erandioko Udalak enpresa-jarduerak hasteko laguntza eskatzeko epea zabalik dauka. Interesdunek azaroaren 30era arte izango dute laguntza eskatzeko epea. Gehienez jota, enpresa-proiektu bakoitzak 3.000 euro lortu ahal izango ditu. Udalak azaldu duenez, laguntza jasotzeko ezinbestekoa da «enpresa Erandion eratu eta martxan ipintzea». Dena den, salbuespen bat dago horretan: «Erandion sortu ez arren, hiru hilabete baino lehenago bere kokapena aldatu» duten enpresek ere laguntza-eskaera aurkeztu ahal izango dute, beti ere kokapen berria Erandio bada.

Epemuga: azaroak 30

Denborari dagokionez, aurkez daitezkeen enpresak dira 2015eko abenduaren 1etik 2016ko azaroaren 30era bitartean sortutakoak. Bestalde, enpresaren forma juridikoa edozein izan daiteke, hala nola, banakako enpresaburuak, profesionalak, ondasun-erki-degoak eta sozietate zibilak.

Enpresa onuradunak ez du administrazio publikoakaz zorrik izan behar, hau da, egunean eduki behar-



Behargintzan zein udal webgunean lor daiteke dokumentazioa. © ERANDIOKO UDALA

ko ditu zerga-betebeharrak Foru Ogasunagaz eta Erandio Elizateko Udalgaz, baita Gizarte Segurantzarekiko ordainketak ere.

Sortutako enpresa bakoitzak 3.000 euroko laguntza jasotzeko aukera edukiko du. Laguntza hori modu mailakatuan lortu ahal izango da. Lehenengo fasea enpresa sortzea da. Hori egiteagatik 1.500 euro lortuko du eskatzaileak paper denak aurkeztuz gero eta kreditu nahikorik egotekotan. Enpresariak edo enpresariak egiten duten inbertsioen arabera, beste 1.250

euro jasotzeko aukera izango da. Diru kopuru osoa eskuratzeko inbertsioa 100.000 eurokoa izan beharko da, handik behera, hiruko erregela erabiliko du Udalak dagokion laguntza kalkulatzeko. Hortaz, proiektu gutxiak lortuko dute atal horretan diru kopuru handia. Azkenik, 250 euroko laguntza osagarria lortuko dute Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza arloan diharduten enpresek, beti ere Europako Batzordeak hautatutako sektoreetan lan egiten badute. ◀

info+: ekintzailletza@erandioko-udala.net

Santa Zezilia eguneko kontzertua emango du Musika Eskolak

Astlehenean, hilak 21, Santa Zezilia musikarien zaindariaren omenezko jaiagaz bat eginez, Erandioko Musika Eskolako irakasleek kontzertua emango dute, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxeko ekitaldietarako aretoan, 19:00etan. Emanaldi horregaz batera, eskolak aurten ospatu duen 25. urteurrenako ekitaldiei amaiera emango die. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, kontzertuan «hainbat estilo eta egileren lanak joko dituzte». Sarrera doakoa izango da, aretoko leku-kopuru denak bete arte. 2016. urtean, ekitaldi asko antolatu ditu musika-eskolak, hala nola, kontzertuak, argazki eta musika-tresnen erakusketa, bideo musikala, eta abar; horrez gainera, udalerriko hainbat auzotan ere izan du presentzia. Udal iturriek gorarazi dutenez, «Musika-eskola Ignacio Aldekoa ikastetxeko guraso-talde baten proiektu txiki batetik sortu zen». ◀

OHZ eta estolderia-tasak ordaintzeko laguntzak izango dira

Datorren urtean, Erandioko Udalak hainbat laguntza emango die bazterketa-egoeran dauden familiei. Ogasun eta Ondare Arloko Informazio Batzordearen proposamenez, zenbait ordenantza fiskal aldatzea erabaki zuen Udalbatzak, azken bilkuran. Besteak beste, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari (OHZ) eta estolderia-tasei aurre egiten lagunduko die Udalak. ◀

Berbotsek euskaraz beste pauso bat emateko erronka ipini die erandioztarrei

Datorren abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu eta aldarrikatu da Euskal Herrian eta mundu osoan. Erandion ere, hitzordu garrantzitsua izango da, auzoetako kultur, jendarte eta kirol taldeei eta Berbots euskaltzaileen topaguneari esker. Halere, aurten Euskarak 365 Egun ekimena ezberdina izango da. Ez bakarrik aurten urte bisustu izanda karteletan «366 egun» irakurriko dugulako, Berbotsek erandioztarrei bestelako proposamena ere egin dielako baizik. Aurten, Berbotsek «pauso bat aurrera» egin gura du. Horregatik, erronka bat hartzea proposatu diete erandioztar guztiei, «euskararen erabilera sustatzeko asmoz». Erronka hori norberak finkatuko du,



© BERBOTS

«bakoitzak bere neurrikoa, txiki-txikia ala ahalegin handiagoa eskatzen duena». Gainera, banaka edo taldeka egitea ere aurreikusi dute euskaltzaileek.

Desafioa ondo uler dadin, hainbat adibide ipini diete auzotzarrei. Hona hemen eredueta batzuk: «Facebo-

ken idatzi, asko, baina beti gaztelaniaz? Horra zure erronka!»; «Entrenatzailea euskalduna da eta gaztelaniaz egiten dituzue entrenamenduak? Horra zuen erronka!»; «Seme-alabei euskaraz, baina zuen artean gaztelaniaz jarduten zarete? Horra zuen erronka!».

Berbotsek eskatu du erronkak azaroan gauzatzeko. Aurretik, euskaltzaileek eskatu dute bideo labur batean nork bere buruari botatako desafioa grabatzeko eta sare sozialetara igotzeko edo Berbotsera bidaltzeko. Bideo barik, argazkiak edota testuak ere aintzat hartuko dituzte. Ekarpenean denak ondo etorriak izango dira. Dena ondo bidean, abenduaren 3an ekitaldi ederri egingo dute Astrabuduko Mendiguren plazan. ◀

Droga-diagnostikoa egiten laguntzeko eskatuko diete gazteei

Erandioko Udalbatzak onartu berri du drogamenpekotasunen aurka borrokatzeko 2020ra bitartean erabiliko duen plana. Testu horretan, garrantzia eman diote gizarte-hezitzaileen rolari eta gazteak batera lan egiteari. Hala, haxixaren eta beste drogen kontsumoaz diagnostikoa egiteko asmoz, testuak planteatu dituen informazio-iturri nagusietako batzuk dira kalean batzen diren kuadrillen topalekuak eta gazte-lonjak. Elena Pérez Gizarte Ekintzarako zinegotziak aurreratu duenez, diagnostikoaren ostean Udalak estupefazianteen kontsumoak eragin ditzakeen «arriskuen eta kalteen berri» emango die gazteei. Neska-mutilak «oso goiz» hasten omen dira droga kontsumitzen. ◀



Gai (des)ordena

LOHITZUNE
RODRIGUEZ AURREKOETXEA
Filosofian lizentziatua

Botere- harremanak nonahi daudelako

Gizakiaren historia klase borrokaren historia dela ikasi genuen Alderdi Komunistaren Manifestuan, zapaldu eta zapaltzaileen arteko borrokaren historia. Borroka hori, ordea, ez da dimensio bakarrekoa. Ez. Engelsek, *Familiaren, jabetza pribatuaren eta estatuaren jatorrian* esan zuen etxean, gizonak betetzen duela burgesaren rola, eta emakumeak, aldiz, proletarioa ordezkatu. Etxetik kanpo zapaldua dena zapaltzaile bihurtzen da, bere atariko atetik igarotakoan. Egoera hori, ene ustez, pertsonen arteko harreman anitzetara estrapolatu daiteke.

Ziur naiz artikulu honen irakurlea, idazlea bera bezala, zapalduen klasearen parte dela, proletarioa. Baina ziur naiz, halaber, zapaltzaile ere badela, garaia, gizon langilea bere etxean legez. Generoak, azalaren koloreak, status ekonomikoak nahiz soziologikoak, gaitasun dialektikoak edota biolentziaren kudeaketak (fisikoa edo hitzezkoa) ematen diguten botereaz baliatu gara noizbait, segur, gure nahia gailen dadin, aurrean daukagun eta txikitu eta boteregabetu nahi izan dugun horren kontra. Egoera horiek unekoak izan daitezke, baina hamaika harremanetan, fosilizatu ere egiten dira, desoreka horiek betikotuz.

Askok gustukoegi dugu biktimaren papera, eroso sentitzen gara zapalduen etiketapen. Errugabetu egiten gaitu horrek. Alta, geure burua iraultzailatzat izanik hainbestek, borrokoarena ere noiz, nola eta norekin egiten dugun aztertzea betebeharru saihestezin zaigu. Ezer gutxi aldatuko baitugu gure pribilegioak babestuz (nola babestu, gainera...). Mundua irauli beharra dago, baina gu geu eta ingurua aldatzeko prest ez bagaude, zer da irauli nahi duguna? Iraultzak ez al du zapalduen alde egiten? ◀

Leioa

Vicrilako langileen alde

Lamiakoko beirategiko langileei elkartasuna eta babesa adierazi die Leioako Udaltzat, aho batez.

Astelehen arrastian egindako ezohiko eta premiazko osoko bilkuran, Lamiakoko Vicrila lantegiko beharginen aldeko adierazpena onartu zuten, aho batez, Leioako Udaltzate osatzen talde politiko denek. Alkatetzak proposatutako idatziari babesa agertu zioten EAJk, ESNatu Leioak, EH Bilduk, PSE-EEk eta PPk. Besteak beste, Udalak Eusko Jaurlaritzari eskatuko dio «akordio egokiak lortzeko helburua daukaten jarduera-prozeduretan parte hartzen jarraitzea, alde denen borondatea errespetatuz». Bitartean, bere eskumenei dagokienez, Vicrila kokatuta dagoen industria-zoruaren kalifikazioa ez aldatzeko konpromisoari e-



Astelehen goizean Eusko Jaurlaritzaren ordezkariak batu ziren Vicrilako langileak, Bilbon.

tsiko dio Udalak. Bertoko beharginak sufritzen dabilzan egoera larria azaldu zion Vicrilako langile-batzordeak Mari Carmen Urbietak alkateari. Modu berean, Udaltzatek bere jarrera adieraz zezan eskatu zion udal-agintariari. Beharginek azaldu legez, Lamiakoko

lantegiarentzat hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu dute Vicrila enpresako arduradunek, eta lantokia «ixteko arriskuan» dago; horrek zuzeneko 300 lanposturen eta zeharkako beste horrenbesteren galera lezarke. ◀

info+: hiruka.eus/bereziak/vicrila

Sabino Arana kaleko auzokide eta merkatariak batu dira

Udal-agintariak azaroaren 9an batu ziren Sabino Arana kaleko merkatariak eta auzokideak; bertan egingo diren lanen inguruan daukaten kezka ezagutu gura zituzten gobernari leioaztarrek. Besteak beste, lur-azpiko kanalizazioak hobetuko dituzte eta, neurri batean, kalea oinezkoentzat egokitu dute. Iban Rodriguez alkateordeak adierazi duenez, «merkatariak ez dute ondo ikusten kalea oinezkoentzat egitea; euren ustez, kanpoko jendea bertara joan ahal izatea zailtzen baitu horrek». Auzokideei dagokienez, «aparkalekuak kenduko direnez, eta euren atarira, erosketak edo gaixorik dagoen senideren bat bi-



Sabino Arana kaleko pasatuko da EHUko tranbia.

sitatzeraz ezingo direlako hurreratu» kezka dute, batez ere. Alkateordearen berbetan, «kezka horiek denak aztertzen gabiltza orain, beste aukera batzuk eman ahal izateko». Horiek idatziz aurkezteko aukera ere zabaldu dute. ◀

Sexu-erasoagatik atxilotutakoa ez da epaitegian aurkeztu

Leioan 14 urteko neska batek jasandako sexu erasoagatik atxilotutako 18 urteko mutila ez da agertu epailearen aurrean; karguak aske utzi zuen, baina noizbehinka Getxoko epaitegira joateko beharraz. Horren ildotik, martitzenean, azaroaren 15ean, Elena Unzueta Bizkaiko Foru Aldundiko bozeramaileak nabarmendu zuenez, «mutila boluntario izan zen Aldundiaren gizarteratze-programa batean; baina, utzi egin du. Eta bizi zen tutoretzapeko-pisua ere bai». Horren harira, «persona horren zaintzaren ardura epaileak» duela ohartarazi zuen foru-arduradunak, «horrek utzi zuelako aske». ◀

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduera ugari.
- Ikastolen Elkarteko ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

GetxoGason Euskararekin bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

Sopela



Abuztuaren 20an emakume gazte batek jasandako sexu-erasoa salatzen kontzentrazioa.

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko asmoz, azaroaren 24tik 26ra, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Sopolako Udalak eta Itzartu emakumeen elkarteak, elkarlanean. Hala, azaroaren 24an, Sarah Gavronen zuzendutako *Sufragistas* (Erresuma Batua, 2015) filma ikusgai egongo da, Kurtzio kultur etxean. Genero ikuspegiko zinema saioa 18:00etan izango da; sarrera, doan. Hurrengo egunean, azaroaren 25ean, barikuan, puxikak askatuko dituzte eta egun horretako adierazpena irakurriko dute, 19:00etan, udal etxean. Horren ostean, mahai-ingurua egongo da, udaletxeko sarreran. Egitarauagaz amaitzeko, azaroaren 26an, zapatua, *Cuaderno en blanco* antzezlan eskainiko du Hika taldeak. Hitzordua 20:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean; eta sarrerak 5 euroan salduko dira, ohiko lekuetan.

Elkar ikusi barik hogeitau urte igaro ostean, ustekabeen topo egiten duten ahizpa biren istorioa kontatzen du *Cuaderno en blanco* antzezlanak: Begoñak

eta Arratek bizitzarekiko muturreko jardura ezberdin bi irudikatzen dituzten. Ama hil ostean, ahizpa biak aurrez aurre elkartzeko elkarri kontuak eskatzeko balioko du. «Ezer gutxi dakite amak batengan edo bestearengan utzitako arrastoez. Nahikoa lan izan du bakoitzak bere bizitza eraikitzen; nahikoa lan bizitzen», diote Hikakoek. Gatazka, emozioa, poetika eta umorea protagonista dauzkan istorio hunkigarria da. Itziar Ituño, Miren Gojenola eta Agurtxane Intxaurre dira antzezleak. ◀

Egitaraua

Azaroak 24, eguna

18:00 *Sufragistas* pelikula, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Azaroak 25, barikua

19:00 Puxikak askatuko dituzte eta adierazpenaren irakurriko dute, udaletxean. Horren ostean, mahai-ingurua egongo dute, udaletxeko sarreran.

Azaroak 26, zapatua

20:00 Hika taldearen *Cuaderno en blanco* antzezlan, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 5 euro.

Gabonetako jardueretan izen-ematea, zabalik

Aurtengo egonaldi irekietan 68 umek eta gaztek parte hartu ahal izango dute.

Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era arte, Gabonetako egonaldi irekiak egingo ditu Sopolako Udalak; 4 eta 13 urte bitarteko umeei zuzenduta egongo dira. Hala, egun horietan jardura ugari gozatzeko aukera edukiko dute neska-mutilek, astelehenean barikuan, 09:00etatik 14:00etara, Kurtzio kultur etxean. Izen-emateko epea abenduaren 11ra arte egongo da zabalik; Sopolan erroldatuta dauden umeei lehentasuna edukiko dute, eta leku denak betetzen ez badira, beste udalerrietako neska-mutilei emango diete izen-emateko aukera. Gabonetako ekintzetan parte hartu

gura dutenek Kurtzio kultur etxera, udaletxera edota Larrabasterrako Sopolaren udal bulegora joan beharko dute. Aste bakoitzeko salneurri dagokienez, erroldatutako lehenengo seme edo alabarengatik 45 euro ordainduko dute aita-amek; bigarreneatik 33 euro; hirugarreneatik eta hurrengoengatik 28 euro; eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen duten familietako umeei 28 euro baino ez dituzte ordaindu behar izango. Azkenik, Sopolan erroldatuta ez daudenentzako salneurria 75 eurokoa izango da.

Bestalde, txanda bi egongo dira: lehenengoa, abenduaren 26tik 30era; eta bigarrena, urtarrilaren 2tik 5era. Umeei lehen txandan, bigarrenean edo bietan eman ahal izango dute izena, beti ere lekuri egon ezker. ◀

info+: www.sopeladata.org

Hainbat zerga eta tasa ordaintzeko laguntza emango du Udalak

Errenta-maila txikia daukaten familia-unitate sopoloztarrei 2016ko Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) eta zarama batzea zein estoldagatik tasak ordaintzeko laguntza emateko deialdi publikoa onartu du Udalak. 2016ko ordainagiritarako eskariak aurkezteko epea azaroaren 30era arte izango da. Hala, diruz lagundu ahal izango diren eskaeren artean, gehienez, 19.148,52 euro banatuko dituzte. Besteak beste, aurkeztu beharreko agirien artean dago Lanbidek emandako ziurtagiria: «horren bidez egiaztatuko da, batetik, langabea edo SBEn jasotzailea den; eta, bestetik, jasotzen dituen prestazioen zenbatekoa», adierazi dute udal iturriek. ◀

Olentzeroren eta Mari Domingiren irudien lehiaketa egingo dute

Aurten ere Gabonetako marrazki-lehiaketa antolatu du Udalak; ohi den legez, 5 eta 12 urte arteko neska-mutilei zuzenduta dago. Hala, marrazki irabazlea Udalaren Gabonetako postalaren irudia izango da, eta Olentzero eta Mari Domingiren etorrera ospatzeko ekitaldiak iragartzeko erabiliko dute. Parte-hartzaileek azaroaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dituzte lanak, Kurtzio kultur etxean, astelehenean barikuan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta aste-akabuetan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Sariak abenduaren 24an banatuko dituzte, udaletxeko plazan. ◀

info+: kultura@sopela.eus

Jarrai gaitzazu:

hirukaEus @hirukaEus

www.hiruka.eus

ARTOLOZAGA
Tailerrak ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.talleresartolozaga.com

Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74

Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

BOSCH Service
Car Service

hau herkontzatik
ander deuna batxilergora


Gatzarriñe bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunaikastola.eus

Berango

Nazioarteko esperientziak

B Creative jardunaldiak egiten dabil egunotan Berangoko Gazte Mahaia ekimena.

Berangoztarrak Italiara joan ostean, nazioarteko gazteak gurera etortzeko ordua heldu da. Horretarako, Frantzia, Italia eta Poloniatik etorritako hainbat gazte hurreratu dira eskualdera, Udalaren laguntzagaz Berangoko Gazte Mahaia antolatutako *B Creative* ekimenera. Egitarau mamitsua antolatu dute egunotarako; hau da, martitzenean ekin zioten lanari, eta astelehenera arte ibiliko dira kreaio lanetan, Berangoko *Stay and Job* inguruan. Bitarte horretan, ekimenean parte-hartzen dutenek hamaika aukera izango dute, hala nola Simona Mattak gidatutako berrikuntza sozialerako proiektuen prototipoak egiten ikasteko tailerra, Zirkozaurrera bisita gidatua, txangoa Gaztelugatxera, Gernikako Astran bisita gidatua eta batukada tailerra. Antolatzaileek argitu dutenez, egitasmoa Uribe Kostako gazteei zuzenduta dago, 18 eta 35 urte arteko gizon-emakumei, hain zuzen ere.



Hilaren 21era arte egingo dituzte jarduerak. MAITE MENTXAKA

Uda hasieran eratu zuten Berangoko Gazte Mahaia, udalerriko eta inguruetako gazteen arteko harremanak sustatu eta ekimen ezberdinak bultzatzeko asmoz. Arduradunek azaldu dutenez, ekimena «leku irekia» da, hortaz, interesa duen edonork parte hartu dezake. Hilabete gutxi daramatza martxan ekimenak, halere, denbora tarte horretan hainbat jarduerak egin dituzte, hala nola gazte ekintzaileen topaketak

eta Italiako Arona herrira joateko truke-bidaia. Antolatzen dabilzan azken ekimena *B Creative* jardunaldiak dira; horietan, datorren azaroaren 21era arte nazioartetik etorritako eta Berangoko zein inguruko 28 gazte esperientziak trukatu dituzte. Hainbat irteera egingo dituzte, halere, bertan egingo diren jarduerak gehienak Berangoko Santa Ana auzoko *Stay and Job* inguruan burutuko dituzte. ◀

Egitaraua

Azaroak 17, eguena

10:00-12:00 Lariso talde italiarrak gidatutako ekintza

12:00-13:00 Kalabazan Kultur Ekimenaren jarduerak.

16:30-18:30 Proiektuen prototipoak egiteko sarrera.

18:30-19:30 Simona Mattak gidatutako Berrikuntza sozialerako proiektuen prototipoak egiten ikasteko tailerra.

20:00-22:30 Afarria eta euskal dantzak, Simon Otxandategi dantza taldeagaz.

Azaroak 18, barikua

10:00-13:00 Berangotik irteera.

16:45-19:00 Zirkozaurre eta ZWAP, bisitak.

Azaroak 19, zapatua

09:30-13:00 Gaztelugatxe, Bermeo eta Mundakara irteera.

13:30-16:00 Bazkaria Mundakan.

16:30-19:00 Gernikako Astra bisitatu.

Azaroak 20, domeka

10:00-13:00 Proiektuen prototipoak garatu.

16:30-19:00 Topaketak.

21:00-22:30 Zaratamba Batukada tailerra.

Azaroak 21, astelehena

10:00-13:00 Utopian eskolara bisita eta WSM Poloniako taldearen jarduerak.

16:30-18:30 Ondorioak atera eta ebaluazioa.

18:30-22:30 Agurra.

Beldur Barik programa aurkeztuko dute eguaztenean

Azaroaren 25a Emakumeenganako Aindarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna da; hori dela-eta, Beldur Barik programaren aurkezpen instituzionala egingo dute azaroaren 23an, eguaztenean, Berango Antzokian. Horretarako hitzordua 11:00etan ipini dute, eta bertan egongo dira Emakundeko, Eudeleko, Aldundiko eta Udaleko ordezkariak. ◀



Gabonetako kolonietan izena eman daiteke daborduko

Urrun daudela dirudien arren, Gabonak ate joka ditugu. Hori dela-eta, Udalak oporraldi horretarako umeentzako programa prestatu du daborduko. Hala, horretan parte hartu gura duten neska-mutilek azaroaren 21era arte izango dute izena emateko aukera. Hilaren 24an zozketa publikoa egingo dute, eta hilaren 28an, astelehena, onartutako behin betiko zerrenda eza-

gutuzera emango dute. Gabonetako ekimen guztiak euskaraz izango dira, adin tarte bakoitzari egokitutakoak: Ludotxiki (2013-2011 jaiotakoak), Ludoteka (2010-2008 artekoak) eta Ludokluba (2007 eta 2002 artean jaiotakoak). Koloniak abenduaren 26tik 30era artekoak izango dira; halere, bestelako ekintzak ere egongo dira urtarril hasieran. ◀

info+: berangokultura@berango.org

Gorliz

Gaminiz auzoaren HGZ handituko dela deitoratu dute

Gorlizko Higiezinaren Gaineko Zerga-grik altuena duen auzoa Gaminiz da. Gaminiz Bizirik auzokideen elkarrekin jakinarazi duenez, zerga horren harira Aldundiak egindako berrikusketaren ondorioz, «gehikuntza nabarmenak» pairatuko dituzte. «Balorazio horren ondorio da auzo honetako lurzoruari emandako balorea», azaldu dute. Hala, Gaminiz Bidean, metro koadro bakoitzaren balorea 1.408 eurokoa da. Horren ondorioz, datorren urtean bertoko etxebizitzaren balore katastrala «asko handituko» dela deitoratu dute auzokideek. Hori dela-eta, joan den azaroaren 13an bilera bat egin zuten horri aurre egiteko neurriak adosteko. Hala, balorazio horren aurkako sinadurak batzen hasi direla ohartarazi dute. Horrez gainera, norbanako edo kolektibo gisa Aldundiaren erabakiaren aurkako helegiteak aurkeztera dei egin dute. ◀

info+: www.gaminizbizirik.blogspot.com.es

Inguruko udal igerilekuetan izena emateko laguntzak

Ur kirolak zein igeriketa ikastaroak egiteko instalaziorik ez du Gorlizko udalerririk. Hori dela-eta, bertako Udalak diru-laguntzak emango ditu inguruko udalerrietako igerilekuetan izena eman dezaten gorliztarrek. Hala, Gorlizko erroldatutako 18 urtetik beherako gazteek Sopelako edo Mungia udal igerilekuetako ikastarotant igerian ikasi gura badute, Gorlizko Udalak diru-laguntzak emango dizkie. Azaldu dutenez, emango duten laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko dute zein alde dagoen kasuan kasuko udalerriko bazkideen kuotaren eta Gorlizko erabilitzaileentzat finkatzen den kuotaren artean.

Diru-laguntza horiek guztiak 2016ko ikastarotarako deialdia arautzen duten oinarrien arabera emango dira. Eskariak aurkezteko epea abenduaren 12an amaituko da. ◀

info+: www.gorliz.eu

Plentzia



Auzunera ailegatzeko dauden bi bideetatik bat itxita dago, martxotik.

Konponbidea gura dute

Isuskitzako auzokideen komunitateak martxotik itxita dagoen errepidea desjabetzea gura du.

Plentziako Isuskitzara, berenberegir urbanizaziora heltzeko errepide bi daude; halere, horietako bat segurtasunagatik itxita dago martxotik hona. Iñigo Zarauz bertako Komunitatearen presidentea azaldu duenez, bide horiek pribatuak dira, hau da, ez dira urbanizazioarenak, Isuskitzako mendien ugazabenak baino. Hala, urtez urte «bidezorreen» ibili direla azaldu du. Arazoa da bide hori konpontzeko ardura ez duela inork hartu gura orain. Horren harira, Zarauzek aitortu du Plentziako Udalak baduela «borondatea» irtenbide bat lortzeko, baina martxotik hona aurrerapausorik lortu ez dutela deitoratu du. Bertako auzokidearen ustez

irtenbidea oso erraza da: Udalak errepidearen eremua desjabetzea eta hura konpontzea. «Berton bizi gara Plentziako mila auzokide baino gehiago, eta bertako zergak ordaintzen ditugu; horrenbestez, ez dut uste egundoko eskaera egiten gabiltzanik», dio Zarauzek. Errepideen jabeak desjabetze horren «alde» daude presidentearen arabera; ondoren egin beharreko gauzak egin daitezken.

Ostera, irtenbidea aurkitzea ez da hain erraza Plentziako alkate David Cresteloren ustez. Azaldu duenez, auzi horretan hiru inplikatu daude: komunitatea, lurren ugazabak eta Udala; hori dela-eta, hiru horien arteko akordioa lortzea beharrezkoa da. «Arazoa konplexua da, baina beti esan dugu negoziatzeko prest gaudela», aitortu du alkateak. Jakinarazi duenez, daborduko bederatzita bilera egin ditu Udalak auzokideen komunitateagaz; hurrengo egunean, hilaren 17an izango da. ◀



Taularatu

ÁLEX YGARTUA
Aktorea eta zuzendaria

Urte berri on!

Plentzian urte amaiera aurreratzen da. Datorren azaroaren 26an, 19:00etan, Plentzia Telebistak, Astillero plazan, Gabon zahar gaueko programa grabatuko du. Dagoeneko hirugarren urtea da egiten dutena, beti bezala umorea ez da faltako. *Sketch*-ez beteriko gidoia daukate eta horren barruan, David Crestelo, Plentziako alkatearen parodia ikusi ahal izango dugu. Aitziber Onaindia, Ibai de Miguel eta Álex Ygartua izango dira urteko azkenengo programa aurkezteko arduradunak. Plentziako herria urduri xamar dago eta jada mahatsak prest dituzte. Azaroaren 26an, Plentziako udaletxera hurbildu eta gau ezberdin bat bizi ezazue! ◀

Gabonetarako eskaintza zabala prestatu du Udalak


Gabonei begira ipintzeko aitzakia dute daborduko Plentziako neska-mutilek. Izan ere, Udalak antolatutako ekimenetan parte hartzeko edo izena emateko epea zabalik dago. Hala, gaztetxoek postal-lehiaketan, Ludotekan eta Umeen Gabonetako Parkera joateko irteeraz gozatzeko aukera izango dute. Lehenengoaren kasuan, Gabonetako VI. Postalen Haurren Lehiaketarako lanak abenduaren 2ra arte aurkeztu ahal izango dira, Goñi Portalen. Abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitartean, ostera, Ludoteka berezia egingo dute 2003. eta 2012. urte artean jaiotako neska-mutientzat. Horretarako izen-ematearen epea hilaren 11n amaitu zen arren, oraindik izena eman daiteke Umeentzako Gabonetako Parkera joateko, irteera hori abenduaren 29an egingo dute. Horretan parte hartu gura duenak izena eman dezake abenduaren 2ra arte. ◀

info+: www.plentzia.eus

Udalerria garbiago mantentzeko neurriak, adostuta

Udalerriko bide-garbitaz arduratzen den enpresako ardura-dunagaz batu zen joan den astean Plentziako Gobernu-taldea, zerbitzua hobetzeko asmoz. Azaldu dutenez, udal-agintariak hainbat aldaketa proposatu zituzten horretarako, eta jakinarazi dutenez, aurrerantzean, hilean behin, astelehenetik barikura, langile batek sakonean garbituko ditu herriko hainbat kale, berbarako: Txipio, Saratxaga, Alde Zaharra, Areatza eta Portua kaleak.

Bestalde, orain arte barikuero kamioi batek presiopeko uragaz garbitu ditu kale batzuk (Erribera, Areatza...). Horrez gainera, hemendik aurrera, Alde Zaharreko kaleak ere presioko uragaz ere garbituko dira (eskuz, kamioia sartzen ez delako); gune biak txandakatuz. Hala, «gune historikoak merezi duen mantenua jasoko du», arduradunek azaldu dutenez. ◀

info+: www.plentzia.eus

Urriaren 13an egindako ekitaldian jaso zuen saria Itxaso Zabala gorlitzarrak.

Uribe Kosta institutuan ikusgai dago ArgiHizkiak erakusketa

Plentziako Goñi Portalen egon da ikusgai V. ArgiHizkiak literatura-lehiaketaren erakusketa oraintsu arte, Getxoko sari-banaketaren ekitaldiaren eta Torreneko egonaldiaren ostean. Eta erakusketak ez du Plentzia utziko oraindik: Uribe Kosta institutuan (Gatzamina, zk/g) ikusi ahal izango da astelehenetik hilaren 27ra arte. Bertan, 10 argazkiak eta horietan oinarritutako euskarazko 40 testu labur onenez goza daitezke. ArgiHizkiak lehiaketara 174 parte-hartzailek 212 testu helarazi zituzten: testu labur-laburrak 127 izan ziren eta testu laburrak, 85. Batetik, 16-18 urte bitartekoek 134 testu

bidali zituzten; 18 urtetik gorakoek, 78. Denera, 32 herritako parte-hartzaileak izan ziren. Bizkaitarren artean, 149 parte-hartzaile Uribe Kostakoak izan ziren, eta 172 testu bidali zituzten (Barrikatik 4, Berangotik 4, Erandiotik 9, Getxotik 38, Gorlitzik 34, Leioatik 9, Lemoizetik 9, Plentziatik 28, Sopelatik 26 eta Urduiztik 11). Horietatik 105 testu Uribe Kosta institutuko ikasleek izan ziren; eta 4 sari nagusietako bat irabazi zuen horietatik batek: Itxaso Zabala Mondinak (Gorliz, 2000), Eider Moreno Carreroren argazkian oinarritutako testu labur-laburrari esker. ◀

info+: www.argihizkiak.com

Uribe Kosta

Neurriak hartzeko deia

Berangon eraikitzen dabilzan merkatalgune berriaren aurka jotzeko eskatu die EH Bilduk eskualdeko udal guztiei.

Berangoko Landaia gunean eraikitzen dabilzan merkatalgunearekiko «erabateko desadostasuna» agertu du Uribe Kostako EH Bilduk. «Makroproiektu» horren atzean daudenek eskualdeko herrien bizitza «hipotekatuko» dutela ohartarazi dute, «bertoko bizitza sozial eta kulturala desagerraraziz». Horrez gainera, salatu dute agintariek ezarri gura duten herri-eredua: «bizitarik gabekoa, giro sozial eta kulturalik gabekoa». Uribe Kostako udalerrriak lo egiteko bakarrik izango diren herri bihurtu gura dituztela deitoratu du koalizio abertzaleak: «Berangoko Gobernu-taldea da Berango zein beste eskualdeko herriak hiltzera kondenatu gura dituen». Horren aurrean, eskualdeko EH Bilduko zinegotziek azaldu dute koalizio abertzaleak merkataritza txiki zein ertainaren aldeko apustu «argia» egin izan duela urteotan, eta egiten jarraituko duela. Bestalde, euren ustez, merkatalgune horrek sortuko duen lana «ez



Obrak aurrera doaz Landaia inguruan.

da duina izango». «Jakín badakigu langileek pairatuko dituzten lan-baldintzak eskasak izango direla; baldintza ezegonkorrak, soldata txikiak, ordutegi luzeak... horiek dira, besteak beste, sortuko diren lanen ezaugarri nagusiak», deitoratu dutenez.

«Ezarriko duten eredua» salatzeaz gainera, orain dela aste batzuk obretan aztarna arkeologikoak «aurkitu» zituztela ohartarazi du EH Bilduk. «Ja-

kin izan dugun bezala, bertan zenbait hondar topatu eta ez omen dira aintzat hartu, nahiz eta Eusko Jaurlaritzaren arabera, zantzu arkeologikoak topatzen direnean berehala Foru Aldundiko Kultura saila abisatu behar den», azaldu dute. Horregatik guztiagatik, Uribe Kostako udalei «jarrera aktiboa» izatera eta merkatalgune horren aurka gogor borrokatzera deitu dute EH Bilduko eskualdeko zinegotziek. ◀

Erabakitze eskubidearen aldeko martxa, domekan

Dena prest dago eskualdeko hainbat herritako Gure Esku Dago taldeek erabakitze eskubidearen alde abiatutako sinadura-batzeari amaiera emateko. Horretarako, mendi-martxa egingo dute datorren azaroaren 20an. Ibilbideak Barrika, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urdulizetik irtengo dira, bakoitza bere orduan. Hala ere, 13:00etan denek egon beharko dute Plentziako Ontziola plazan. Bertan sinadura-batzeen aurkezpena egin dute eta hurrengo faseari ekingo diote: galdera adosteko faseari. Jai-giroa izango da nagusi Plentzian, dantza-plaza eta mokadutxoak egongo dira-eta. ◀

Euskararen Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude, Barrikan

Euskararen Eguna dela-eta, herri-bazkaria egingo dute azaroaren 26an, zapatuan, Barrikan. Horretaz gozatu gura duenak txartela erosi beharko du udal liburutegian, azaroaren 20a baino lehenago; 15 euroren truke. Bazkaria Iparralde tabernan izango da; hala ere, beste hainbat ekimen egongo dira: poteoa, antzezlanak eta txokolate-jana, barbarako. ◀

Gorlizko eta Plentziako Euskara Agenda, martxan

Azaroko eta abenduko Euskara Agenda prest dago. Kontuak hala, hainbat ekimen egongo dira aukeran egunotan Gorliz eta Plentzian. Hurrengoak gurasoei begirako berbaldiak izango dira, euskararen erabilera inguruan sentsibilizatzeko asmoz. Gorlizko Sertutxenan azaroaren 17an eta 24an eskainiko dituzte berbaldiok;

Plentziako Goñi Portalen, azaroaren 29an eta abenduaren 1ean. Herri bietakoa saio guztiak arrastiko 06:30ean hasiko dira. Horietan parte hartu gura duten gurasoek alde aurretik izena eman beharko dute. Hurrengo ekimena abenduaren 2an izango da, eta dokumental bi emango dituzte. ◀

info+: 688 654 770 / euskera2@uribekosta.org



Hilean behin joaten dira mendira. ETZANDARRI

Artaungan mendirako irteera atzeratu du Lemoizko Etzandarririk

Hileroko ohiturari jarraituz, Lemoizko Etzandarririk euskal mendi taldearen gaztetxoaren irteera egin behar zuten azaroaren 20an, Artaungan mendira (Bizkaia, 905 metro). Hala ere, antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun horretan bertan Gure Esku Dagok deitutako mendi-martxa dagoela ikusita, irteera atzeratzea erabaki dute. Hala, Lemoizetik irteten eta Plentziara joateko martxan parte hartzeko deia egin dute. Lemoizko ibilaldiak 11:00etan abiatuko dira, Andrakatik, Armintzatik eta Urizarretik. ◀

info+: 688 602 121 (Marian)

Aritza Bergarak liburu berria aurkeztuko du barikuan Armintzan

Armintzan bizi den Aritza Bergara sestaoarrak bere liburu berria aurkeztuko du azaroaren 18an. *Lagrimas de fuego* izeneko lanaren nondik norako berri Armintzako Kaia tabernan emango du. Horretarako hitzordua arrastiko 07:30ean ipini du. Hurrengo egunean, ostera, Sestaon aurkeztuko du liburua, La Iberia kaleko Gaztelekuan, arrastiko 06:30ean.

Bergara idazle, musikari eta euskal kulturari lotutako ekimen berrien sortzailea eta bultzatzailea da. Zugarramurdi euskal musika tresnen eta Albokale albokarien bandaren sortzaile eta parte-hartzailea izan da, besteak beste. Gainera, mitologiaren eta musikaren inguruko ekimen askotan parte hartu du; udako eta neguko solstizioen inguruan, mitologiaren gainean edo euskal soinu-tresnen inguruko ehunka berbaldi eman ditu. Ezin aipatu barik utzi idatzi dituen hainbat libururik: *Mitologika* bilduma, *Bajo la Sotana* eta *Olas Negras*, barbarako. Azken hori iaz argitaratu zuen. ◀

Txiri-txiri martxa egingo dute domekan, Urdulizen

Joan den azaroaren 6an egitea aurreikusitako bazuten ere, azkenean hilaren 20an, domekan, egingo dute Urdulizko Txiri-txiri martxa edo ibilbide osasuntsua. Aurtongoa zazpigarren edizioa izango da. Horretarako hitzordua goizeko 10:00etan ipini dute, Elortza plazan, udaletxearen aurrean hain zuzen ere. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Urduliztik atera barik, ibilalditxo lasaia eta osasungarria egin-

go dute. Hurrenez hurren bisitatuko dituzte Errementariñe, Haurreskola, Antsonetxea plaza, Artadi auzunea eta Goietza kalea, udaletxera bueltatu baino lehenago. Denera, ibilbideak 2.570 metro izango ditu, eta ordu erdi inguru-edo beharko dute ibilaldi osoa amaitzeko. Orduantxe, hamaiketakoak prestatuko dute, eta umeei opari bana emango diete. ◀

info+: www.urduliz.eu



Ordutegiari dagokionez, 11:00etatik 14:30era eta 17:00etatik 21:00etara (domekan 20:00etan itxiko dute) bisitatu ahal izango da. © GETXOKO UDALA

Ekitaldi batzuk

Azaroak 18, barikua

19:00 Horacio Altuna eta José Ibarrolari omenaldia eta sari-banaketa.

Azaroak 19, zapatua

12:45 *15 años de Astiberri* berbaldia.

18:15 Paul Pope eta David Rubín, aurrez aurre.

Azaroak 20, domeka

13:15 *Por favor, dispáren al guionista* mahai-ingurua.

20:00 Komiki-film laburren proiektzioa.

Azaroaren 27ra arte

Zure komikia maite dugu erakusketa, Algortako Torrean aretoan.

Abenduaren 11ra arte

Astiberri: 15 años de portada(s) erakusketa, Bizkaiko Zubian.

Morirse en Bilbao erakusketa, Areetako Glass tabernan.

info+: www.salondelcomicedgetxo.net

Binetaren mundua

Getxoko Komiki Azoka azaroaren 18tik zora arte egongo da ikusgai, Areetako Xake plazan ipinitako karpan; sarrerak 1,50 euroan salduko dituzte.

Getxoko Komiki Azokaren hamabosgarren edizioa izango da azaroaren 18tik zora, Areetako Xake plazan ipinitako karpan; hiru egunez, binetaren mundua protagonista bihurtuko da. Aurten, 60 salmenta-postu aurkitu ahal izango dituzte bisitariak azokan; besteak beste, komiki-dendak, libu-

ru-denda espezializatuak, aldizkariak, fanzineak, argialetxeak eta bederatzigarren arteagaz lotutako dendek euren ekoizpenak erakutsiko eta salduko bertan. Merkataritzaguneagaz batera, beste jarduera asko egongo dira.

Ohi den legez, artista ezagunek bisitatuko dute Getxoko Komiki Azoka; horietako batzuek nazioartean ospe

handia dute, eta berbaldi zein aurkezpenetan parte hartuko dute, batez ere. Horrez gainera, sinadura-saioak egingo dituzte, zaleek gustukoak dituzten egileak ezagutzeko aukera izan dezaten. Aurtengo gonbidatuen artean, David Aja ilustratzaile gaztearen parte-hartzea nabarmendu dute antolatzaileek. Azken urteotako azal-egile entzutetsuenetariko bat da Aja, eta Marvel argialetxearentzat hainbat lan egin ditu. Valladolideko artistak sari garrantzitsuak lortu ditu; Harvey, Eagle eta Eisner sariak, berbarako. Paul

Pope ere azokan egongo da. Komiki alternatiboaren erakusgarri, mundu osoan ezaguna da Pope, super-heroien komikietan eginiko lanengatik; *Batman: year 100*, berbarako, zaleen artean ospe handia lortu zuena. Modu berean, Alex Robinson ere bertaratu da Areetan; *Malas ventas* eleberrirako grafiko ezagunaren egilea, 2005eko Angoulêmeko komiki-jaialdian saritu zutena. Bestalde, eskarmentu handiko Horacio Altuna ilustratzaile argentinarri eta José Ibarrolari gorazarre egingo die Getxoko Komiki Azokak. ◀

Zinebik emanaldi bi eskainiko ditu Algortan

Bilboko Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Jaialdiaren 58. edizioa barikuan hasiko da, azaroaren 18an. Zinema-zuzendari, gidoilari, antzezle eta kritikari Jaime Chávarri emango diote aurten Oho-rezko Mikeldia, Bilboko Arriaga antzokian egingo duten ekitaldian. Aurten, 71 filmek parte hartuko dute jaialdiko sekzio ofizialean; horietatik sei euskal zinemagileenak dira. Hain zuzen ere, Algortako kultur etxean egongo dira ikusgai, astelehenean, azaroak 21, 19:30etik aurrera; sarrera, doan. Martitzenean ere, azaroak 22, beste hainbat film ikusi ahal izango dira, Villamonten, ordu berean. ◀

Emanaldiak

Azaroak 21, astelehena

19:30 Algortako kultur etxea (Villamonte).

Filmak:

Renovable (fikzioa); *Ulises* (fikzioa); *Hileta* (fikzioa); *Anónimo* (fikzioa); *Gure hormek* (dokumentala); eta *Jane, Tarzan ez zen horren guay* (animazioa).

Azaroak 22, martitzena

19:30 Algortako kultur etxea (Villamonte).

Filmak:

Emakume baserritarrak: bestelako etorkizuna ereiten (dokumentala); *La habitación* (fikzioa); *Hamabietan dueloa* (animazioa); *Metamorfosis* (dokumentala); *Erregea* (fikzioa); *Última sesión* (fikzioa); eta *El revolver de Morga* (dokumentala).

Mungialdeko antzezaleek Berangon taularatuko dute *Euskarazaleak* lana, zapatu honetan

Zapatu honetan, azaroak 19, Berango Antzokian eskainiko du *Euskarazaleak* antzezlanaren Mungialdeko Antzezaleen Elkarteak (MAE). Hitzordua 19:00etan ipini dute; sarrera, doan. Antzezlanaren euskaltegi baten ingurukoa da. «Bertan, arrazoi ezberdinengatik euskara ikastera hurbiltzen diren ikasleak ezagutzeko ditugu», azaldu dute Mungialdeko antzezaleek. Aipatutako lana 2015eko azaroan eman zuten ohol-tza gainean lehenengoz. MAEri dagokionez, 2012an sortu zen; taldeko kideek adierazi dutenez, euren helburuak dira Mungialdean dagoen antzerkia eta arte eszenikoarekiko zaletasuna batzea eta bultzatzea, besteak beste. ◀

Eskualdeko berbaeraren gaineko lana aurkeztuko dute Algortan Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik

Azaroaren 22an, martitzena, *Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdeko euskara* liburua aurkeztuko dute Urtzi Goiti leioztarrak eta Koldo Zuazok EHUKo irakasleak, UKITXeko lagunek gonbidatuta. Ekitaldia 19:30ean izango da, Algortako Azebarri euskaltegileen kultur topalekuan (Euskal Herria Kalea 14-16). Aurkezpenaren ostean, galderak egiteko eta mokadutxo hartzeko aukera egongo da, antolatzaileek aurreratu dutenez. «Euskararen ipar-mendebaldeko ertzean daude Uribe Kosta, Txorierrri eta Mungialdea; horregatik da hango hizkera berezia», liburuaren egileen ustez. Leioztarra da Goiti, eskualde honetako hiztuna. ◀

PLENTZIA

Kaleak alaituko ditu berriro Kantagunek

Hurrengo kantu-jira bariku honetan, azaroaren 18an, egingo du Plentziako Kantagune taldeak. Ohi legez, lehenengo hitzordua 19:00etan ipini dute, entsegua egiteko, Kristo basilizan. Ostean, 21:00etan abiatuko dira kantu-jiran. ◀

GETXO

Markinan hasiko da lehian Jone Uria

Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren lehenengo finalaurrekoan hasiko da lehian Jone Uria Albizuri algortarra, 2014an finalista izan zelako. Saioa zapatu honetan, azaroak 19, izango da, 17:30ean, Markinako Uni frontoian. ◀

ERANDIO

Txotxongilo-tailerra egingo dute, laster

Zapatutan ekimenaren barruan, azaroaren 26an, itzalezko txotxongilo-tailerra egingo dute Altxagako Ludotekan, 17:00etan. Izen-emateko epea hilaren 21era arte egingo da zabalik. ◀

izen-ematea: euskara@erandio-udata.net

Iraun beharrendaren gaitzak jotako komunitate baten hezurren eta gezurren erradiografia traumatologikoa da *Francoren bilobari gutuna*. ©ARTEDRAMA



Artedramaren azken lana, Leioan

Badira urteak Euskal Herriko hiru lurraldetako hiru antzerki talde elkartu zirela: Artedrama (Bizkaia), Le Petit Théâtre de Pain (Lapurdi) eta Dejabu Panpin Laborategia (Gipuzkoa); elkarregaz sortu zituzten *Errautesak* eta *Hamlet* antzezlanak. Orain *Francoren bilobari gutuna* oholtzaratu dute. ◀

Noiz: Azaroak 18, barikua.
Ordua: 20:30
Non: Kultur Leioako entzungela.
Sarrea: 6-12 euro.
14 urtetik gorakoentzat.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoko honetara: hiruka@hiruka.eus

2016/11/19 - 17:00

Angry birds filma

Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrea: 2 euro.

2016/11/19 - 19:00

Euskarazaleak antzezlan

Berango Antzokia | Berango
Mungialdeko Antzezaleen Elkarteagaz.
Euskaraz. Sarrea, doan.

2016/11/19 - 20:00

Santa Zeziliako kontzertua

Areetako musika-eskola | Getxo
Ondarreta abesbatzagaz. Sarrea, doan.

10 años y aniversario nima

Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo Zineforumaren *Emakumea eta Isama: sekretuak eta gezurrak* zikloa. 12 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrea: 2,50 euro.

2016/11/23 - 19:00

Haize-bandaren kalejira

Altxagan zehar | Erandio
Erandioko Musika Eskolak antolatuta.

2016/11/23 - 19:30

Los retos de la familia del siglo XXI berbaldia

Algotako kultur etxea | Getxo
Mugabarik elkarteak antolatuta. Gorka Vázquez Aranburugaz. Gaztelaniaz. Sarrea, doan.

URDULIZ

Hansel eta Gretel antzezlan eskainiko du Glu Glu taldeak

Grimm anaien ipuin klasikoan oinarritutako *Hansel eta Gretel* antzezlan eskainiko du Glu Glu taldeak bariku honetan, azaroak 18. Hitzordua 18:30ean ipini dute, Urduizko kultur etxean; sarreak 4 euroan egingo dira salgai, kultur etxean bertan. Antolatzaileek azaldu dutenez, ikuskizuna 3 eta 9 urte bitarteko umei zuzenduta dago. ◀

ERANDIO

Baso magikoa ipuina egingo da entzungai, Eneko Etxebarrietagaz

Eneko Etxebarrietak *Baso magikoa* ipuina eskainiko du bariku honetan, azaroaren 18an, Erandiogoikoako gizearte etxean. Entzuleak 19:00etan batuko dira; sarrea, doan. Hilaren 23an eta 30ean ere saioa eskainiko du Etxebarrietak, Astrabuduko eta Altxagako liburutegietan. Emanaldi horiek biak 18:00etan izango dira. Ikuskizuna 1 eta 3 urte arteko umeentzat da. ◀



2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.

Txikienentzako antzerki-jaialdia



La Baracca-Testoni Ragazzi italiarren *Girotondo* antzezlanaren Sopelan eta Leioan egongo da ikusgai. © LA BARACCA

Urte erdi eta lau urte arteko umeentzako hiru saio eskainiko ditu *Txiki, txiki, txikia* jaialdiak, Sopelan eta Leioan.

Umeentzako apropos sortutako antzezlanak eskainiko ditu, hirugarren aldiz, *Txiki, txiki, txikia* jaialdiak. Horretako saio batzuk Sopelan eta Leioan antolatuko dituzte. Batetik, Kurtzio kultur etxe sopoloztarrean, La Baracca-Testoni Ragazzi talde italiarraren *Girotondo* lana egongo da ikusgai zapatuan, azaroaren 19an; saioak

12:30ean eta 18:00etan izango dira. Sarrera 3 euroan egongo da. Bestetik, Kultur Leioan, *Loo* obra antzeztuko du Kataluniako Ponten Pie konpainiak zapatuan. Eta *Girotondo* antzezlanaren leioaztarrean ere egongo da ikusgai, domekan, hilaren 20an. Sopelan legez, obra bakoitzeko saio bi egingo dituzte Leioan: 12:30ean eta 18:00etan. Sarre-rak 3,75-5 euroan salduko dira.

Ez da erraza ume txikientzako apropos sortu eta egokiak diren lanak topatzea. Horixe da *Txiki, txiki, txikia* festivalak betetzen duen hutsunea: 6 hilabete eta 4 urte bitarteko umeak dauzkaten sendiei arte eszenikoez gozatzeko aukera eskaintzen die. Aurten, jaialdiaren hirugarren edizioa egingo da Basaurin, Barakaldon, Berrizen, Bilbon, Durangon, Leioan, Mungian, Sopelan eta Zarautzen. Jaialdian bost lan taularatuko dituzte: *La où j' habite*, Des Mots d' la Dynamite konpainia kanadarrarena; *Jardín Secreto*, Asturiasko Zigzag Danzak antzeztua; Imaginart katalanen *Sensacional*; *Loo*, Ponten Pierena; eta *Girotondo*, La Baracca-Testoni Ragazzirena.

Hur-hurretik

Formatu txikiko lanak dira. Hur-hurretik antzeztu dituzte; hala, umeek kanpoko ikusle izateari uzten diote, istorioan bertan murgiltzeko, antolatzaileek azaldu dutenez. Txikienek ulertzeko eta gozatzeko helburuagaz sortu dituzte; antzerkia txikitatik bizitzera eta erakargarri egitea gura dute, antzerki-mundua ezagutzeko. *Txiki, txiki, txikia* orain dela urte bi sortu zuten Herrialde Katalanetan, *El mes petit de tots* jaialdiaren senide txikia legez. ◀

Hitza emanda ▶

Txapela

Txapelak berez ditu mila adiera... bertsolarion begiz bakarra da bera! Txapelketa martxan da, guztiak artega; ea aurten berriro datorren gurera!



BEÑAT VIDAL GURRUTXAGA
Bertsolari leioaztarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



80 Saltoki 80 Puestos • 20 Especialitate 20 especialidades
Haurrentzako tailerrak • Talleres infantiles • Erakustaldiak Demostraciones

ORDUTEGIA HORARIO
11:00 - 14:30 / 17:00 - 21:00
(Larunbatean 21:30ak arte / Sábado hasta las 21:30)

AREETAKO GELTOKIA PLAZA
PLAZA ESTACIÓN DE LAS ARENAS
SARRERA DOHAINIK - ENTRADA GRATUITA

Getxo Getxo Bizkala HERRIARTEA bbk EL CORREO metro bilbao

Jon Arretxe idazleagaz hitzordua ipini dute Erandioko liburutegian, gaur arrastian

Altzagako liburutegia bisitatuko du Jon Arretxe Perez euskal idazleak (Basauri, 1963) gaur, eguena, azaroaren 17a, 18:00etatik aurrera. Jende askok esaten zion basauriarrari bazela ordua bere nobela beltzetako bat Euskal Herrian kokatzeko, eta pertsonaia bat sortu eta horregaz saga bat sortzeko ere bai. Arretxek kontu biak egin ditu *19 kamera* eleberriagaz. Bilboko San Frantzisko auzoan kokatu, eta Toure pertsonaia sortu du. Trama paralelo batzuek osatzen dute umorea eta gordintasuna konbinatzen dituen nobela beltza: Palankako klub bateko prezio susmagarriak, trafikatzailen arteko istiluak, adin txikiko prostituta baten desagertzea, kaputxadun talde baten jipoi eta hilketak... Dena dela, nobelako ardatz nagusia Toure da, Bilboko San Frantzisko auzoan bizituen etorkin afrikarra. apurka-apurka, kasu eta proposamen bitxiak sortzen joango dira... ◀



Tokikom Jardunaldien laburpen-grafikoa egin zuen, zuzenean, Pernan Goñi ilustratzaileak. Horien baitan banatu ziren Tokikom sariak. PERNAN GOÑI

Denon esfortzua, saritua! Segitu Hiruka bultzatzen

Portada onenari Tokikom Saria jaso du HIRUKAK: Hodei Torres argazkilariak Armintzan bertan egindako irudi itzelak, eskualdeko protagonistaren saltoak, bertoko esamoldeaz aurkeztutako jaien menuak.


Toki komunikabideetan egiten den lan bikaina, sarritan, tokian tokiko esparruan baino ez da ezagutzen. Horregatik, tokian tokiko kazetaritza-lanak publiko zabalari ezagutarazteko asmoz, TOKIKOM Sariak antolatu ditugu, aurtengo, lehenengoz» azaldu du TOKIKOMek, Toki Komunikabideen Bateraguneak. Tokikom 60 tokiko komunikabidek osatzen dute, tartean HIRUKAK. Sektore-kideen eskutik saria jasotzea alegantzia hutsa da! Diamante, perla eta urre gorri asko dago gure artean; oraingoan, zorionak beste saridunei: Noaua astekariari (edukirik onena), Goiena Tebistari (ikus-entzunezko onena) eta Baileike.eus agerkariari (aipamen berezia). HIRUKAren azala Getxoko Bizarra Lepoan euskara-elkarteak aurkeztu zuen sariketara; badakigu beste batzuek ere proposamenak bidali zituztela. Eskerrik asko, denoi! Bazkide eta HIRUKALagunei ere bai! Zuk eta biok egiten dugulako HIRUKA! Urribekostar euskaldun denon saria da hau. Segitu zuen bultzadaz HIRUKA egiten! HIRUKA zaitezte, HIRUKA gaitezten! ◀



Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak eman zigun saria. MIRARI ALTUBE



HIRUKAren 66. zenbaki bereziaren azala jo du onena legez epaimahaiak, Tokikom sarietara aurkeztutako guztien artean. Horieta beste hautagai batzuk, hauek:



«Mirari bat da Xabiroik jarraitzea; eta mantendu izana»

Dani Fano Ardanaz komikigile donostiarra ohiko erreferentea izaten da Getxoko Komiki Azokara datozen euskaldunentzat. Bederatzigarren artearen euskarazko nobedadeak izaten ditu *Xabiroiren* salmenta-postuan. Ederto ezagutzen du euskal komikigintza, *Xabiroi* eta *H28* aldizkarietako kide ere badelako.

TESTUA: IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Getxoko Komiki Azokak 15 urte beteko ditu aste-akabuan. Zein garrantzia dauka azokak zure ustez? Hasteko, Euskal Herrian egiten den handiena da. Gainera, ez hasieratik baina *Xabiroiren* bigarren urtetik, 2007tik aurrera, beti egon gara presente hor, Komiki Azokan. Sekulako parada da jendearekin egoteko, baita Estatuko zein kanpoko egile eta argitaletxeekin ere. Erreferente bihurtu da guretzat.

Aurten, gainera, kolaboratu egin duzu.

Iaz Iñaki Elorriagak [Getxoko Komiki Azokaren arduradunak] proposatu zidan zerbait egitea, azokan egiten diren lau erakusketetako bat *Xabiroiren* inguruan egitea. Orduan, aurten gure albuma Harkaitz Canok eta Iñaki Holgado atera behar dutenez, gurekin hasieratik dabilen egile-bikotea denez, eta hau denez publikatuko den haien hirugarren lana: *Museo bilduma*, bada proposatu nion horien inguruan egitea erakusketa; hala izango da: *Harkaitz Cano eta Iñaki Holgado: binetazko bikote*. Neu ere han egongo naiz, baina gonbidatuak haiek dira. Ni beti nago, nire lanak sinatzen ere egongo naiz. *Xabiroiren* aldetik, partaidetza berezia haiek izango dute: Harkaitz Canok eta Iñaki Holgado.

Hortaz, barikuan, 12:00etan, sinatze-txanda izango duzu *Xabiroiren* salmentagunean.

Hori da: ostiralean badut txanda bat, larunbatean... egile izateaz gain, *Xabiroiren* koordinatzailea naizenez, saltokian egongo naiz, egunero eta orduero.

Denera, zenbat ordu emango dituzu saltokian?

Denak! Ostiralean hasita, igandean itxi arte; denak.

Sinatze-txandak eskertzen dira, salmentatik ihes egiteko, ala astunagoa da?

Azkenean, bietara nago. Nik sekulako ezberdintasuna nabaritzen dut Getxon ala Durangon. Getxon

“ **Getxoko Komiki Azoka Euskal Herrian egiten den komiki-azokarik handiena da; erreferente bihurtu da** ”

ni naiz saltokiaren arduraduna eta, orduan, baditut beste ezinegon eta ardura batzuk: ea saltzen dugun, egileak etorri diren, eta abarrenak. Aldiz, Durangora joan naizenean, egile bezala joan naiz, lasai-lasai, patxadaz: «a! orain daukat nire sinatze-txanda», eta ardurak besteren batek... Halere, oso ondo eramaten dut, Getxon oso ondo pasatzen dut. Ardura hori daukat eta bietara nago: saltzen, sinatzen, anfitrioiarena egiten egileekin... denetarik, baina oso gustura.

Lehenago esan legez, *Museo bilduma* album berria ekarriko duzue azokara. Zertan datza album hori?

Album oso berezia da. Zerbaitek definitzen badu, Harkaitz Canok definitzen du, bilatzaile mokofina bera. Aurrekoan, aurkezpena egin genuenean, konparatuen Japoniako emakume urpekariekin: hondoan perlak biltzen dituzten, birikiak bakarrik arnasbide. Hori da Harkaitz, nire ustez, bilatzaile fin bat, oso intelijentea eta oso gustu onekoa; eta aurkitzen dituen perlak guretzat dira. *Museo bilduma* hori da, perla-bilduma bat. Gero badago hausnarketa bat: zein bildumazaleak garen gizakiok; eta, azkenean, badago pertsonaia bat, museo museo joan eta museoak biltzen dituen. Hasiera batean, ematen du espioi-lanak egiten balego bezala; baina, gero, historia aldatuz doa... Baina, ez dugu kontatuko. Orain arte egin dugun lanen artean, berezia eta ezberdina da. *Museo bildumari* buruz galdetu didatenean, bidaia bat dela esan dut beti, museo batera joatea bezalakoa. Ireki begiak, ireki burua eta burmuin iragazkorra; eta gozatu!

Urteko album bakarra izango da hori. Horrez gainera, zer beste kontu gehiago ekarriko dituzue?

Aspaldi konturatu ginen euskarazko material asko, nahiz eta egon –egia da euskarazko komiki gutxi argitaratzen dela–, gutxi hori ere askotan ez zegoela. Ez zirelako joaten argitaletxe horiek, askotan argitaletxe txikiak direlako, eta Durangora joaten dira baina, agian, Getxora ez, ez daukatelako astirik, ez dagoelako haien planetan, edo dena delakoagatik. Gabezia hori ikusten genuen: jendea etortzen zitzaigun galdetza, ea besterik zegoen, eta guk ezetz. Hortaz, as-



palditik saiatzen gabiltza dauden euskarazko komiki berri gehienak gure saltokira ekartzen. Beraz, gure materialaz gain, *Xabiroi* aldizkariak eta *Xabiroiko* albumak, denetarik egongo da: *Zaldieroaren De rerum natura*; *Mattin-en Zarrakamalda*; Txalapartak argitaratutako *Habiak* eta *Munduko bandarik txarrena*; Asitiberrik euskaraz argitaratu dituen komikiak, *Pilula urdinak*, *Etxea...* hainbat. Saiatzen gara euskarazko dena, edo gehiena behintzat, gure saltokian erakusten eta saltzen. Gainera, iaz Euskal Herrian argitalexte berri bat sortu zen, Harriet Ediciones; Gregorio Muro Harriet egileak darama. Aurten material gehiago dauka eta elkarrekin jarriko gara. Beraiek haien saltokia eta guk gurea, baina erdiko paretako dugu, eta Harriet Edicionesen material guztia ere gure ondoan egongo da. Hainbat egile eta euskarazko material partekatuko ditugu.

Zer iruditu zaizu aurtengo egitaraua?

Badakit erakusketak zeintzuk diren. Gainera aurtengoak bereziki interesgarriak iruditzen zaizkit: David Aja, Ibarrola, Harkaitz eta Iñakirena zein Horacio Altunarena iruditzen zaizkit aukerarik onenak.

Bada erakusketa gehiago, tartean Algortako Torre-ne aretoan Mikel Begoña sopoloztarraren eta zure lanak batzen dituen *Zure komikia maite dugu*.

Bai, José Carlos Torrek [*Rumble!!* fanzinearen koordinatzaile leioztarrak] prestatutakoa. Iaz ere egin zen, Bizkaian ere bai. Komikia sustatzen ibili dire-

nen inguruko erakusketa da. José Carlosekin egon nintzen, eman nion materiala; baina, ez dut ikusteko aukerarik izan.

Xabiroira bueltatuz, 11 urte pasa dira jaio zenetik. Zein da egiten duzun balorazioa?

Miraria dela; kar, kar, kar. Hasieratik. Argitalpen-

“***Xabiroik* komikigintzari egin dion ekarpenik esanguratsuena bere inguruan egile-sare bat egonkortzea izan da**”

mundua zaila da; bada komikiarena... ez dut esango; eta euskarazko komikiarena... beldurgarria da. Baina aukera suertatu zen *Xabiroi* sortzeko, Ikastolen Elkarteak egin zigun proposamena, eta zenbakiz zenbaki opari bat da, mirari bat. Urteak joan, urteak etorri, ohitu egin naiz, normaltzat hartu dut; baina, egia da, patxadaz aztertzen baduzu, mirari hutsa dela *Xabiroi* mantendu izana, eta *Xabiroik* hor jarraitzea. Garai txarrak pasatu ditugu, diru aldetik, zalantzak, egiten jarraitu ala ez jarraitu, beti gabiltzan moduan; baina, jada proiektua oso egonkor edo sendo ikusten dut. Harrokeria puntu batekin esango dut: *Xabi-*

roik garai bat markatu du. Agian gehiegi esatea da, baina, egia da, *Xabiroi* sortu zenean ez zegoela ezer edo ia ezer. Esango nuke *Xabiroik* komikigintzari egin dion ekarpenik esanguratsuena izan dela, existitzeaz aparte eta argitaratu duen materialaz aparte, egile-sare bat bere inguruan egonkortzea. Lehen, *Xabiroiren* aurretik, egile horiek guztiak sakabanatuta geunden, ez genuen elkarren berri, hor geunden, gure etxean, proiektu indibidualetan. Eta *Xabiroik* zer egin du? Ez dakit zenbatean behin, aldizkarian, Getxon, Anguleman, edo ez dakit non, batzen gara, egoten gara «kar, kar, kar», eta horrek egonkortu du horrelako egile-sarea, fruituak ematen dituen. Ez dakit zenbat komiki-egitasmo *Xabiroiri* esker egin direnik ez dut esango, baina bai sortu direla sinergia batzuk, gero emankorrak izan direnak. Seguru aski, *Xabiroin* egon ez balira, euren artean kolaboratu duten egileek ez zuketenoiz elkar ezagutuko. Interesgarriena hori izan da: orain oso aktibo eta parte-hartzailea den sarea.

Aldizkariaren irakurle gehienak nerabeak dira, baina zuek nagusientzako komikiak egitea erabaki zenuen lehenengo momentutik.

Bai. Nerabeentzat zerbait egitea oso arriskutsua da. Klabea da ezin ditugula tontotzat hartu. Beraientzat zerbait diseinatzen badugu, kale. Kale egiten ari gara sorreratik. Sortu behar dugu guretzat. Gure nerabezaroa gogoan hartuta, ez genituen nahi nerabeentzako gauzak. Nik irakurtzen nituen [Milo] Manara eta 1984 aldizkaria, adibidez; helduentzako komikiak, literatura eta zinema. Merkatu frankofonoan oso ondo definituta dago hori: *ado/adulte* (nerabezaroa/helduaroa) deitzen dute beraiek; adolezente batek, hasteko esfortzu bat eginda, gustura irakur dezakeen zerbait eta nagusi batek gustura irakur dezakeen zerbait da. Guk ez daukagu lerro editorialik, egileok nahiko libre jokatzeko dugu. *Xabiroin* egileari proposatzen zaio zerbait egiteko, baina berak erabakitzen du zer egingo duen. Hortaz, ez daukagu nerabeentzako produktua izateko fama.

H28 aldizkari digitalean ere bazaude. Orain, pape-rean ateratzea proposatu duzue.

Bai. Iaz eman genuen jauzi hori; urtekari bat egin genuen, Durangorako. Komikigile gehienok paperaren jonkiak gara eta komikiak usaindu egiten ditugu. Orduan, iaz pentsatu genuen urtekaria ateratzea, oso gustura geratu ginen emaitzarekin, saldu genuen gure irakurleen artean, eta aurten berdin. Iaz izan zen *Urtikaria*; aurten izango da *Urdekaria*.

Beraz, urteko album bakarragaz segituko duzue?

Bai. Bilduma bat izango da, urtean zehar aldizkari digitalean ateratakoen hautaketa bat. Iazkoa baino potoagoa izango da, 100 orrialdeetara joan baikara, *crowdfunding*-kanpaina baten bidez finantzatuta.

Amaitzeko, komikigintzan interesa duten neska-mutilei zer esango zenieke?

Mundiala dela. Askatasun handiagoa ematen duela, irudiarekin lan egiten duten beste adierazpen-medioek baino. Egiteko merkea delako; zinematik eta telebistak ez duten askatasun hori duelako: egin dezakezu kortsarioen historia bat edo erromatarrena, eta ez duzu lokalizatorik, jantzirik edo estrarik behar. Mugarik ez duen adierazpen artistikoa eta literarioa dela, eta hori baliatu beharrekoa dela, gozamina dela. ◀

Mendi-astea Algortan

Getxoko Itxas Argia mendi-taldeak Mendiaren Nazioarteko Astea antolatuko du, astelehenetik eguenera artean, egunero 19:30etik aurrera, Fadurako areto nagusian.



Builek izotzetan eskalatzea dauka gustukoan. © CECILIA BUIL

Mendiaren Nazioarteko Astearen XVIII. aldian, protagonistak honako hauek izango dira: Isa García, Cecilia Buil, Tente Lagunilla eta Alex Txikon. Astea abiatuko du astelehenen, hilaren 21ean, Isa García alpinista barakaldarrak, iaz Indiako Himalaiara egindako espedizioa azalduko du. García gogora ekarri duenez, «gure helburu nagusia Num mendia igotzea zen, Indiako ipar ekialdeko Kaxmir aldean dago». Numek 7.135

metroko altuera dauka. Hurrengo egunean, martitzenean, Cecilia Buil eskalataile aragoiarrak honako proiektzioa emango du: *Viajar en vertical: aperturas en roca y hielo alrededor del mundo*. Bertan aurkeztuko du 2014an Piedra Boladan egin zuten lehenengo eskalada, Mexikoko hormarik handiena da hori. Balentria hartan, Builen espedizioak 14 egun eman zituen zintzilik. Ostean, zuzenean azalduko du *HuEllas on ice 6.1* proiektua: sei kontinenteetan izotz bide bana zabaldu

gura du ekimenak; Txilen, Turkian, Hego Afrikan eta Zeelanda Berrian, besteak beste. Neska musulmanen heziketa bultzatzeko hainbat ekimen lagunduko du proiektuak, AEBetako Girls Education International Gobernu Kanpoko Erakundeagaz batera.

Eguaztenean, *Annapurna* dokumentala aurkeztuko du Tente Lagunilla mendizale palentziarrak; 2012an Carlos Soriagaz egin zuen Annapurnarako espedizioa kontatu du. 14 zortzimilakoak lortuko dituen alpinistarik

adinekoena bihurtzeko erronka ipini dio buruari Soriak, eta erronka hori lortzeko bidean egitekoetako bat izan zen espedizio hura. Ikus-entzunezkoan, «mendi eder baina arriskutsu horretan jasandako hiru elur-jausi» ikusteko aukera egongo da.

Azken egunean, Alex Txikon eskalataile lemoztarrak itxiko du Mendiaren Nazioarteko Astea. Bere berbaldia honako hau izango da: «Nanga Parbat (8.126 metro). Neguko aurreneko igoera erronkatzat». ◀

Xabier Orozko emaitza onagaz estreinatu da

Xabier Orozko Castrillo *Laszlo* Askartza Waterpolo Taldeko kapitain ohiak distira berezia eman dio bere estreinaldiari, Ohorezko Mailan. Hamabi zenbakidun jokalaria 11 tanto sartu ditu Rubí igeriketa-klubagaz jokaturako lehenengo bost partidetan. Waterpolo Nafarroa Kirol Elkartearen aurka jokatu du datorren zapatuan, hilaren 19an, 19:30etik aurrera, Iruñeko igerilekuan. Kategoriako hamabi golegile onenen artean dago Orozko, nahiz eta Espainiako Igeriketa Federazioak emandako datuetan hala ez ageri, hainbat oker tarte. Askartzako neska-mutilen heroiak tanto bi sartu zituen Mataróren

aurka, hura izan zen bere lehenengo partidua Ohorezko mailan. Canoeren aurka, Orozko punteria bikoiztu egin zuen, aurkarien atea lau bider zulatuz. Sant Andreu klubaren kontra, ordura arteko batezbestekoa egin zuen, zaleei poztasun hirukoitza emanez. Azkenik, Molins de Reiren eta Barcelonaren aurkako partidetan, gol bana sartu zuen Orozko. Jokalariak 30 urte ditu eta pasa den abuztuan sinatu zuen Rubí igeriketa-klubagaz, Askartzan 15 urte eman ondoren. Askartzatik ate nagusitik atera aurretik, Orozko azaldu zuen: «litekeena da hau nire azken aukera izatea Ohorezko Mailan lehiatzeko, esperientzia horretaz gozatzeko». ◀

Maite Arraiza, nagusi Antxintxikako krosean

Maite Arraiza Aramendia atleta getxoztarrak Soraluze-Bergara krosean parte hartu zuen lehenengo aldiz, pasa den zapatuan, azaroaren 5ean; eta txapela buruan bueltatu zen etxera. Berak egin zuen emakumezkoen denborarik onena Antxintxika Triatloi Taldeak antolatutako proban. June Arbeok izan zen bigarrena, eta Maider Uribe, hirugarrena.

Arraizak proba amaitu ostean azaldu zuenez, «kontrolatzen joan naiz atzean June fuerte zetorrelako. Elkarregaz atera gara; baina, gero, ni aurrera joan naiz. Kontrolatzen joan naiz karrera osoan. Oso lasterketa polita da: ibilbide gogor xamarraz, baina



LARRAITZ ZEBERIO-GOiena

ondo. Oso ondo ibili naiz», esan zuen kirolari getxoztarrak.

Gizonezkoetan, David García durangarrak amaitu zuen proba lehenengo, eta zazpigarren aldiz irabazi zuen Soraluze-Bergara lasterketa. Aitor Mimenza izan zen bigarrena. ◀

Fadura Tenis Klubaren etorkizuna jokoan dago



Fadurak igotzeko zuzeneko txartela galdu zuen Zaragozan, ez zuelako finala irabazi. © FTK

Fadura Tenis Klubak etxean aurre egingo dio patuari, domeka honetan, azaroaren 20an. Orduan, Cercle Sabadellès 1856 klub katalana izango du aurrez aurre Fadurako instalazioetan. Norgehiagoka horretan erabakiko da datorren denboraldian Estatu espainiarreko lehenengo mai-

lan lehiatuko den ala ez. Fadura Bigarren Mailako txapeldunordea da; ostera, Sabadellgo kluba lehenengo kategoriako zazpigarrena, azken aurrekoa. Pasa den azaroaren 5ean eta 6an jokatu zen B kategoriaren azken fasea, Zaragozan. Bertan, bigarren amaitu zuten algortarrek. ◀

Mercedes Aristegui, gazte onenen artean

Etorkizun Oparoko Gazteen Espainiako Nazio Tenis-zirkuituaren Masterreko finalaurrekoetara heldu zen Mercedes Aristegui, pasa den azaroaren 5ean. Horretarako, aurretik, lehenengo fasean, Marina Benito jokalaria gainditu behar izan zuen Jolaseta klubaren jokalaria. Finalaurre-

koetan, ordea, Lucía Cortez izan zuen aurrez aurre Aristegui. Lehenengo setean 2-6 irabazi arren, bigarrena 6-2 galdu zuen, eta azken zein erabakigarrian 6-3 galdu zuen Jolasetakoak. Aristegui zirkuituaren Albaceteko eta Madrilgo kanporaketak irabazi zituen, eta finalista izan zen Getxokoan. ◀

Jorge Barrie da Bizkaiko Tenis Federazioko buru

Bizkaiko Tenis Federazioaren presidente izango da Jorge Barrie Borrás beste lau urtez. Hala erabaki du lurraldeko klubaren, jokalarien, teknikoen eta epaileen gehien-goak, egin duten hauteskunde-prozesuan. Neguriko Jolaseta Errege Klubaren zuzendaritzan kide ohi le-

gez segituko du, aldi berean, Euskal Tenis Federazioan; erakunde horren presidenteordea baita. Barriek 2012an hartu zuen Bizkaiko Federazioaren presidentetza, Joseba Loroño ordezkatzean. Jolasetakoak eskarmentu handia dauka kirol munduan, futbolean, padelean eta, bereziki, tenisean. ◀

Getxon eman hegoak euskarari



Getxoko emakumeen elkarteak Txantxangorriarekin bat: Bilgune feminista, Gizatiar eta Mujeres con voz

Lehiaketa! Txoriaren bila

Irakurri oinarriak eta funtzionamendua: www.getxo.eus/euskara



Txori bat ezkutatu dugu Algortan eta beste bat Areta/Romon; bilatu, aurkitu eta bidali argazkia WhatsApp honetara: 688 880 985. Azaroaren 24tik 27ra.

Aurkitzen dutenek zozketa batean parte hartuko dute. Anima zaituzte! Ipad edo Playstation bat irabaz dezakezu





Talde-lanean

JON LOPEZ SAEZ
Entrenatzailea eta kazetaria

Prozesuak, lehiaketak, kirolariak

Kiolarekin batera lehia, dema eta txapelketa datoz. Egia esan, kirolaren inguruan antolatzen diren ekintza gehienek lehiaketa dute oinarri. Modu batean edo bestean lehiatzea dute helburu. Batzuetan emaitza erdigunean jarriz eta besteetan parte-hartzea, baina ia beti lehiaketa formatuan.

Ume eta gazteen kasuan ere, horrela egiten dugu, lehiaketa formatua beste ezeren gainera. Ez dago txarto hau, inolaz ere ez. Lehiaketa, lehiatzen ikastea, galtzea, irabaztea... Hori guztia oso garrantzitsua baita kirolariaren eta gizakiaren formazioan, eta ondo prestatuta dauden kirolari txikitxuen entrenatzaile askok eta askok formazio hau modu ezin hobean egiten dute han eta hemengo zelai, kantxa edota igerilekuan.

Gurasoek ere horren beharra badute, ikastekoa, alegia. Aste-buruko lehiaketari eman behar zaion jarrerari erreparatu behar diote. Lehiaketa formatua du gehienetan seme-alabaren aste-buruko ekintza, baina ikasi behar dute, entrenatzaile eta klubekin batera lehiaketari ez begiratzea eta prozesuari erreparatzea.

Prozesuari, horri erreparatu behar diogu. Kirolak gizaki hobeto batean bihurtu behar gaitu/ditu eta prozesu horri begiratu behar diogu arretaz. Kirolak pertsona, giza talde, kirol-talde... hobeetan bihurtu behar gaitu, hori besterik ez. Kirolak guk izan nahi ditugun ezaugarrietara hurbildu behar gaitu, astiro baina indartsu doan prozesu baten bitartez.

Prozesua oinarrian jartzea ez da epe laburrean distiratsu, ez gaitu aulkitik ziztu batean altxarazten, ez digu aukera ematen oihuekin barruak husteko, ez digu berehalako epaiak irmotasunez defendatzeko parada ematen... Baina garrantzitsua da, oso. Prozesua, besterik ez. ◀



Entrenatzailearen aulkitik partida bi gidatu ditu daborduko Iker Casadok; Abantoren aurka 0-0 berdindu zuten eta Lekeitiori 0-2 irabazi zioten.

«Nire helburua partida bakoitza irabaztea da»

Iker Casado Zaballa da Urduliz futbol-taldearen entrenatzaile berria, Ohorezko Mailan.

INIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA ▶

Ohorezko Mailan lehenengo entrenatzailea izatera heldu zara.

Iaz futboleko jokatzeari utzi nion, epe luze batean helduak entrenatzeko helburuagaz. Aldi berean, hemen koordinatzaile moduan nabilen; hau nire hirugarren urtea da. Bestalde, Nando [Alonso entrenatzailea] etorri zen, klubak egindako apustu garrantzitsua izan zen; elkarren lagunak gara, beste kontu batzuetan beragaz egin eta egiten dut behar, eta berak proposatu zidan

bigarren entrenatzailea izatea. Osasun arazoak direla-eta, entrenatzaile izateari utzi behar izan dio Nandok. Niretzat oso egoera tristea da; alde batetik, ezin dudalako gozatu epe luzean neure buruari ipinitako helburua betetzeak eman behar izango lidakeen zoriontasunaz. Baina kontuak datozen moduan datoz. Ni pozik nago; bai klubak eta bai Nandok nigan konfiantza izan dutela ikusten dudalako, Nandok bere alboan hartzean eta, ondoren, bera ordezkatzeko ni proposatzean, eta «lasai, ondo egingo duzu» esan izateagatik.

Gura duzue berarengana jotzeko ere esan dizue Nandok, ezta?

Jakina! Nik beragaz berba egiten jarraitzen dut, egunero ez, baina, askotan: «hau horrela planteatuko dut edo beste modu horretan? Horri zer deritzozu?

Zer iruditzen zaizu taldea...», eta beste kontu asko! Gura ez dela ere, bertan dago laguntzen.

Zelan dago taldea orain?

Egoera tristea izan da denontzat. Osteira, taldea ondo ikusten dut, gogotsu; ez dugu arreta galdu eta ilusioz gainezka gaude denok, ni neu lehenengoa, eta azkenengo muturtzat jo daitekeen atezainen entrenatzaile den Dani ere bai.

Zein helburu ipini diozu zure buruari?

Aurrekoan, Lekeitio egokitu zitzaigun aurkari, eta irabaztera joan ginen, Lekeitio bakarrik buruan. Hori da nire helburua: partidak banan-banan irabaztea. Eta denek ilusio handia mantentzea eta jokalariek aldaketarik ez nabaritzea da nire lana, Nandogaz egongo balira legez segitzea gura dut. ◀

JUAN MARI
Harategia · Urdaitegia

Baserriko haragia, produktu artisaua eta etxeko zerbitzua

Las Mercedes, 31. 48930 AREETA
94 464 41 25

GAVRKO
1967

GIZONENTZAKO MODA

ZABALA, 9. ALGORTA
94 460 70 84

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45
Telletxe 1 94 460 27 41
Algorta

URIBE KOSTA, TXORIERRI ETA MUNGIALDEKO EUSKARA
Koldo Zuazo
Urtzi Goiti

Geure berbak geureak dirazelako

Hirukalagunen Lehiaketa!

Oraingoan, esangura igarri beharko diozue bertan erabiltzen dugun hurrengo berbari: *opetzi* diogunean Uribe Kostan, zer esan gura dugu?

SARIA

«Uribe Kosta, Txorierri eta Mungialdeko Euskara»
liburuaren ale bi zozkatuko ditugu.
Gura dituzu?

Koldo Zuazok eta Urtzi Goitik idatzitako liburua da.

Azaroaren 28a baino lehenago,
helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta
harremanetarako bide bat hona:
hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

5€

Urtebetetze, ezkontza zein jaiotza...
Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
944 911 337



AMAIA ERANDIO
Berbotsen partez

Zorionak, Amaia! Segi bizitza euskaraz gozatzen! Edozein lorategitan, lorarik ederrena, baita honetan ere. Muxu handi bat guztion partez!



AITITE URBANO LERIN
Zuriñeren partez

Hau pena! Lerro hauen bitartez baino ez dituzu jasoko nire muxuak, urtebetetze egunean... Ez kezkatu. Sofa-ohere erraldoia erosi dugu bisitan gehiagotan etor zaitezten! Zorionak!



AMAIIA GORKIZ
Uribekostarron partez

Azaroaren 21ean gorkiztar jatorrenaren urteak izango dira; zorionak, Amaia! Ongi etorri 3.0 bertsiora poxpolin, noizko zurito batzuk? muuuuaatxx!

Sudokua

		6		8			9
	7				6	3	
5							
4	3		5				7
2							
				4	9		1
		3		8			5
		1		5	6	7	
7			1				

Gogoan hartu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

3	9	8	2	6	1	4	5	7
2	7	7	9	5	3	1	8	6
5	1	5	1	5	1	5	1	5
5	1	5	1	5	1	5	1	5
6	9	4	3	7	8	5	2	1
8	1	2	7	1	9	5	6	4
7	8	1	4	3	6	2	9	5
4	3	4	3	5	2	6	8	1
6	2	5	8	1	7	4	6	3

Horoskopoa

Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)
Zure ondokoan eragin txarretatik alden du; beste la menpean edukiko zaituzte. Zure buruaren jabe zarenan noraino heldu zaitezkeen ulertuko duzu.




Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Sozialki oso lanpetuta egongo zara; beraz, hainbat mailatan aurrerakuntzak izateko momentu aproposa izango duzu laster.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Sukalderako ateratzen diren traste berri denak erosteak ez dizu ezertarako balio izango, baldin eta otordu bat prestatzen ez badakizu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Zure harremanetarako une egokia dator. Era berean, maitekor sentitzeko tendentzia izango duzu. Konfiantzaz beterik eta baikor egongo zara.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Zure kharriak beti lar negatiboak direnez, lagunak asper-asper eginda dituzu. Martxa honetan, zurgandik ihes egiten hasiko dira, atseginagoa izan zaitetz.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lasaitasun beharra duzu. Emozio handien bila ibiltzeak ez du merezi. Disgusturik ez hartzeko konputuak hobeto asimilatzen ohi beharko zinake.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Etxeko konponketetan ez ahalegin du, mailuren batetaz zerikusia duen istripu bat sumatzen baitut. Denok ez gara jai «artista» izateko.



Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Araozak zure kabuz konpontzen ikasi beharrean zaude. Izan ere, azken boladan ez zara bat ere azkartu eta besteentzat zama izaten hasi zara.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Lagunak proiektu berri horien planak aurrera ateratzeko merezi du, ongi suertatzeko bidean baitaude. Ederto ibiliko zara datozen egunotan.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Sendiak poztasun berezi bat emango dizu, ustekabean (baina ez hain ezustean, hemendik daborduko abisatuta baitzaude). Ospatu merezi duen legez.




Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Gaizki ulertze batzuen ondorioz, zure harremanik estuena kolokan egongo da. Darabilzun zeurekoi-keria baztertu, bestela kalte handia eragingo duzu.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Maitasun alorrean aukerak ez dituzu faltan izango, aprobetxatu besterik ez duzu egin behar. Lagunen batek sekretu bat gorde diezaiozula eskatuko duzu.



Otazuaren *Antzonekoa* liburuko ilustrazio bat, José Arruek egindakoa.



Artzaina eta Kedar-garbitzailea ipuinaren ilustrazioa. © ASIER SANZ



Enperadorearen jantzi berria Andra



IKER RINCON MORENO

Otazua



Benito Otazua Asua (Urduliz, 1918-2012)

Erretiroa hartu zuenetik euskararen aldeko jardunean bete-betean murgildu bazen ere, lanbidez ez zen idazlea izan. Ostera, Otazuak umeentzako hamaika ipuin euskaratu zituen, Andersenenen hainbat ipuin eta *Printze txikia*, berbarako; den-denak bizkaierara ekarri zituen.

Benito Otazua Asua urduliztarrak bizkaierara egokitu zituen istorio asko; horietatik ezagunenak Andersen idazle danimarkarraren ipuinak dira. Autore horren 19 istorio euskaratu zituen, guztira. Urdulizko Udalak horietako 12 ipuin berrargitaratu zituen, 2014an.

Denok ezagutzen dugu Hans Christian Andersen (Odense, 1805 - Kopenhage, 1875) idazle danimarkar handiaren ipuinen bat; *Beruneko soldaduxoa* edo *Ahatetxo itsusia*, berbarako.

Olerkiak eta eleberriak idatzi bazituen ere, umei begirako ipuinengatik ezaguna da Andersen; izan ere, 150 ipuinetik gora idatzi zituen. Historialariek diotenez, herri-tradizioetan eta Alemaniako eta Greziako narrazio mitologikoetan oinarritu zen Andersen ipuin horiek guztiak idaztean, baita berak bizitako esperientzietan ere. Hala, 1832. eta 1872. urte bitartean, 168 ipuin idatzi zituen danimarkarrak. Horietako denetako protagonistak izan ohi ziren eguneroko pertsonaiak, ohiko heroiak, animaliak eta bizia zuten objektuak; gainera, sarritan txertatzen zuen irakaspenen bat kontakizunaren amaieran.

Andersen ipuinak, bizkaieraz

Zalantza barik, Andersen umeentzako ipuinak mundu-mailan ezagunak dira eta horietako asko antzezlan eta filmetara egokitu dituzte; Walt Disney Picturesek egindako marrazki bizidunetako pelikulak, esaterako. Eta istorio horiek guztiak 80 hizkuntzatarara egokitu di-

tuzte, tartean euskarara. Izan ere, Benito Otazua Asua urduliztarrak danimarkarraren 19 ipuin euskaratu zituen, bizkaierara, beren-beregi. Ipuin-bilduma hura *Andersen'en ipuiñak* izenburudun liburuan argitaratu zuen urduliztarrak, 1992. urtean. Gaur egun, ostera, liburu katalogoz kanpo dago, eta ez da batere erraza hori lortzea. Hori dela-eta, Otazuak belaunaldi gazteei utzitako ondarea berreskuratzeko asmoz, berak euskaratutako 19 ipuinetatik 12 berreskuratu zituen Urdulizko Udalak, 2014ko azaroan argitaratutako liburua-gaz. Mendebaldeko euskarara itzulitako Andersen 12 ipuinez gozatzeaz gainera, lan horrek azal berezi bi dauzka; Asier Sanz eta Javier Gamboa artista grafikoek azal bana egin zuten beren-beregi lan horretarako; eurenak dira ipuinen ilustrazioak ere. Azaroaren 28an urte bi beteko dira Otazuaren liburua aurkeztu zute-

“ Andersen ipuinak bizkaierara egokitzeaz gainera, bestelako hamaika istorio ere euskaratu zituen Otazuak ”

netik, non eta Urdulizko kultur etxean. Arduradunen esanetan, Sanz eta Gamboa «inguruko marrazkilari ezagun eta aintzatetsienetakoak dira, batez ere euren bineta eta ilustrazioengatik». Hori dela-eta, euren proposatu zieten lan berezi hori.


Errokari aurre egiteko, artista biek sei marrazketa-tailer egin zituzten Urdulizko Elortza ikastetxeko neska-mutilakaz, liburua irudikatzen duten pertsonaiak eta marrazkiak osatzeko. Guztira, eskolako 125 ikasle inguruk parte hartu zuten tailer haietan; horiek guztiek Urdulizko ingurunekeko elementu ezagunakaz lotu



Mari eliza eszenatoki duela. © ASIER SANZ



Marierpuru, Antzonekoa baserriaren inguruan. © ASIER SANZ



Berunezko soldadutxo euskal tradizioagaz uztartuta. © ASIER SANZ

ren ipuiñak

zituzten Andersenren pertsonaiak. Hala, Andra Mari elizaren aurrean desfilatzen du enperadoreak *Enperadorearen jantzi berria* kontakizunean, edo Santa Mariñeko haitzak antzeman daitezke *Txerizaina* istorioan, besteak beste.

Benito Otazua Asuaren ondarea

Benito Otazua Asua urduliztarra 94 urte gaz zendu zen, 2012ko otsailaren 22an; literatura, kultura eta gure hizkuntza bultzatzeko ondare garrantzitsua utzita. Hori dela-eta, esker ona adierazi eta hari gorazarre egiteko asmoz, udal-liburutegiari Benito Otazua Asua izen ofiziala ipini zioten orain dela urte bi, Andersenren ipuinen itzulpen-liburua berrargitaratzeaz gainera. Udalak jakinarazi zuenez, erabaki horren helburua da «egile urduliztarraren izena haren jardueragaz bat datorren ekipamendu bati lotuta geratzea».

Itzultzaile urduliztarraren seme Javier Otazua Barcelók gogoan du aitak «betidanik» izan zuela «gustuko bizkaiera; euskara batua baino gehiago». Hori dela-eta, «bertoko euskalkia txikitxoenei hurreratu guran-edo», askotariko ipuinak itzuli zituela azaldu du. Izan ere, Antoine Saint-Exupéryren *Printze txikia* ipuina eta Antonio Trueba idazle galdamestarraren idazkiak ere itzuli zituen Benito Otazuak, besteak beste. Sabino Arana Fundazioari esker argitaratu zituen Otazuak bere lan gehienak.

Benito Otazua Asua ez zen lanbidez idazlea. Erretiroa hartu zuenean ekin zion euskararen aldeko egitekoari; «Tarteren bat zuen bakoitzean edozer gauza itzultzen zuen euskarara. Aitak utzitako ondarea oso handia izan da», gogoan du haren semeak. Javier Otazuak berak goraiatu duenez, «Euskara asko maite zuen; beti zihoan leku guztietara bere libretatxoagaz eta hiztegi batez. Bere denbora euskarari dedika-

tzen zion; giro euskalduneko pertsona asko ezagutzen zituen». Hala, Bilbon antolatutako umeentzako euskarazko ipuin-lehiaketa askotako epaimahaie-tan ibili zela akorduan du Benito Otazuaren semeak. Modu berean, Bilboko Merkataritza eskolan eta Portugaleteko Batzokian euskara-eskolak eman zituela jakinarazi du Javier Otazuak.

Bazen behin eta bada gaur Urdulizen...

Benito Otazuak gurera egokitutako ipuinak berrargi-

taratzeaz gainera, Mungiako Diz-Diz antzerki-taldeak horietan oinarritutako antzezlanak taularatu zuen 2014an. Mundu-mailan ezagun den Andersenren *Bazen behin...* esamoldeari gorazarre egin gura izan zioten obraren tituluan: *Bazen behin eta bada gaur Urdulizen*. «Egindako muntaia itzela izan zen. Aktoreak profesionalak ez baziren ere, izan bazirela zirudien. Zaletasun handiz egin zuten eta egundokoa izan zen! Halako kontuak aitari eskaintzeak harrotasunez betetzen nau», aitortu du Javier Otazuak. ◀



Benito Otazuak bizkaierara itzultitako hainbat lan ikus daitezke Urdulizko kultur etxean. HODEI TORRES

Lehen/Orain

Erandioko Coliseo zinea (1978)



Erretratua

Mertxe Nafarrate Arkotxa

Mimo handiz egindako sukaldaritza da bere bizipoza.

Sukaldean, lapiko artean, ibiltzea maite du Mertxe Nafarrate Arkotxak; 79 urteko andre berangoztarrak ostalaritzan inoiz behar egin ez badu ere.



Lapiko artean ederto konpontzen den arren, ez du hori inoiz aitortuko Mertxe Nafarrate Arkotxak; baina, Berangon eta inguruetan ezagunak dira 79 urteko emakume honen errezetak: piper beteak, tortillak, krocketak, indabak, sagar-pastela... «Nik ez dut ganoraz kozinatzen, nire amak egiten zuena baino ez dut egiten», dio berangoztarrak. Oso umila da Mertxe. Udan, lau haizetara zabaldu zuen bere izena haren iloba Julen Nafarratek. Bizikleta hartu eta Greziatik Euskal Herrira arteko ibilbidea egin zuen gazteak; izeko Mertzxeren moduko emakumeen bila; horiek topatuz eta eurakaz errezeta bat egiten ikasiz. Gero, andre horietako bakoi-tzak osagai bat eman, bizikletan sartu eta horiekaz denakaz menua osatu zuen sukaldaritza bizi duen izeko Mertzxek, noiz eta 79 urte betetzen zituen egunean. «Julenek ekarritako espezia batzuk arraro zamarrak egin zitzaizkidan... erroskillak egiteko erabili ni-

tuen. Bestalde, nik ipinitako txorizo eta odolosteagaz indaba zuriak prestatu nituen. Menua osatzeko pasta-entsalada egin nuen», azaldu du.

Modu horretan, «emakume denen arteko lotura» egin zuen berangoztarrak; izan ere, horixe bera zen *Izeko Mertzxeren osagaien bila* proiektuaren

“ **Nire belaunaldiagaz galduko da txiri-txiri egiten den su txikiko sukaldaritza** ”

helburu nagusia: beste garai bateko erritmoari garrantzia ematea. Hala ere, txiri-txiri egiten den su txikiko sukaldaritza bere belaunaldiagaz galduko dela uste du Julenen izokok. «Lana tarteko, lehen baino denbora gutxiago dago. Oso leku gutxitan topatu ahal izango dira horrelako errezetak, eta karu ordainduko dira», bere ustez.

Erakunde laguntzaileak:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua